


Herri-egutegia: negua

Udazken eta neguko jai-ohiturak



**EUSKARA
MINTZAGAI**

9



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**


HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Herri-egutegia: negua

Udazken eta neguko jai-ohiturak



Igone Etxebarria Akaitze Kamiruaga



LABAYRU IKASTEGIA

Herri-egutegia: negua

Udazken eta neguko jai-ohiturak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2013

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia	1.a, 2013ko abenduan
Ale kopurua	1.500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Diseinua eta azala	Antton Olariaga
Maketazioa	Antton Olariaga
Argitaratzailea	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet	www.euskadi.net
Inprimaketa	Gráficas Irudi S.L.
ISBN	978-84-457-3335-6
Lege gordailua	VI 851-2013

Labayru Ikastegiak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin lankidetzan, *Euskara mintzagai* bildumaren barruan, paratu duen ale honek *Neguko zikloa. Udazken eta neguko jai-ohiturak* du izenburu. Azpituak adierazten duenez, udazken eta neguko jai-ohiturei buruz dihardu liburuxka honek. Horrela jarri diote izena Igone Etxebarria eta Akaitze Kamiruaga Labayru Ikastegiko ikertzaileek bilduma honetako bederatzigarren aleari. Hain zuzen ere, lan honen edukiak bildumako zortzigarren zenbakian udaberri eta udako jai-ohiturei buruz jorratutakoen osagarriak dira.

Ikerlanean bi urtarotako esaerak, ohiturak, eta zenbait mito, errito eta jai jasotzen dira. Berau irakurriz jakingo dugu, esaterako, udazkenean ez dagoela jai-ospakizun berezirik, baina etxeko hildakoak gogoratzeko Domu Santu eguna eta txerria hiltzeko garaia hasten den San Martin, kasurako, nahiko egun seinalatuak direla.

Neguari dagokionez, herri-egutegian, ospe handiko bi ziklo sartzen dira bete-betean: Gabonetako sasoia, neguko solstizioarekin bat egiten duena, eta Inauterietakoa, udaberriari deia egiten diona.

Gabon egunean hasi eta Erregenetara arte Gabon zikloaren muina da. Egun horiek familiak elkartu, afari-bazkariak batera egin eta ospakizun giroan igarotzekoak dira. Besteak beste, Olentzeroren tradizioaren berri zehatza ematen digute egileek. Gabonak igarota, San Anton egunean animaliak eta lurrak bedeinkatzea egiten da. Otsailaren hasieran, berriz, Kandelario, San Blas eta Santa Ageda bezperako jai-ospakizunak datoz, elkarren segidan.

Geroago, Aratoste edo Inauterien zikloa hasten da. Inauterietako ohiturak kristautasunaren bitartez heldu zaizkigun arren, antzinagoko biziera paganoaren beste askorekin nahastuta daude. Egun horietan jatorri eta helburu ezberdineko jarduerak eta festak pilatzen dira, baina denetan sartzen dira txantxak, askatasun neurri gabekoa, antzezpenak, dantzak, eske-ibilaldiak eta panpinak erre edo apurtzea. Egileek, lana bukatzeko, Euskal Herrian zenbait landa-herritako inauterien inguruko informazio interesgarria eskaintzen digute.

Ondoko orrialdeetan, hortaz, batetik, sasoi bateko erlijio-ohiturak azaltzen dira, eta, bestetik, euskaldunen aspaldiko bizimodu, tradizio, errito, esaera eta errefrauak, sarritan urteko zikloei lotutakoak. Euskara bera bitarteko egokia da historian murgildu eta sakontzeko, aspaldi Barandiaranek, Caro Barojak eta beste zenbait ikertzailek adierazi zuten bezala. Euskara belaunaldien arteko zubi eta lokarria da, gure aurrekoekiko zein gaur egunekoekiko ezaguera-lokarriak sendotzeko parada ematen diguna eta gure ondorengoei gu ezagutzeko bidea eskuratuko diena.



AURKIBIDEA

1. Udazken-neguko zikloa	11
2. Udazkena etxe giroan	11
3. Negua	15
4. Gabonetarako sarrera eta abendua	16
5. Olentzero eta Eguberri	19
6. Neguko solstizioko erritoak	21
7. Erregen eguna	24
8. Inauteri aurreko jaiak	25
9. Inauteriak, aratusteak, karnabalak	30
10. Inauterien araberako ospakizunak	32
11. Ezaugarri orokorrak	34
12. Inauteriak Nafarroan	36
13. Inauteriak Araban	40
14. Inauteriak Bizkaian	41
15. Inauteriak Gipuzkoan	44
16. Inauteriak Lapurdin	46
17. Inauteriak Nafarroa Beherean	48
18. Inauteriak Zuberoan	49
Bibliografia	53
Irudien iturriak	55





1. UDAZKEN-NEGUKO ZIKLOA

Udazken, udagoien, larrazken, ihartze, neguantz, urriaro izenak erabiltzen ditugu negurako ataria adierazten duen urtaroa izendatzeko. Amaitu dira soroetan lanak, eguna laburragoa egin da, argi-orduak gutxitu, eguraldia zakartzen doa eta neguko solstiziorantz zuzentzen gara.

Udazkenean ez dago jai-ospakizun berezirik, udan edo neguan bezain markaturik behintzat, baina Domu Santu eguna (azaroak 1) eta San Martin (azaroak 11), kasurako, nahiko egun seinalatuak ditugu. Lehenengoak etxeko eta familiako giroa dakarkigu gogora; izan ere, etxeko hilak gogoratu eta eurei eskainitako eguna ospatzen da, familia-giroan normalean. San Martin eguna, ostera, txerriak hiltzeko garaiaren hasieratzat hartzen da. Txerria hiltzeak negurako elikagaia, jakia segurtatzea adierazten du. Baina lehen ere etxe guztietan ez zen hiltzen txerria, hori edukitzea gauza handia izaten zen, baratzeko generoarekin batera negu luzeari aurre egin ahal izateko.

Abenduan sartzeaz batera, Gabon aurreko giroa hasten da, San Nikolas (abendua 6) egunetik hasita. Ama Birjina Sortzez Garbiaren eguna egun handia izan da gure artean, amaren eguna ere bai orain urte batzuk arte. Elizan ere Gabon aurreko lau asteek Abendualdia osatzen dute, hau da, Jesusen jaiotzaren aurrerapena. Aldi horretan erronda-kantuak ohikoak ditugu, baita gaur egun ere. Bizkaian herri batzuetan gaur arte iraun du Gabon aurreko bederatzi egunetan herrian zehar kantu berezi batzuk egitea, *Marijesiak*, *Abendua* edo *Kebonikoak* izenak hartzen dituztenak.

Gabon egunean bertan are ohikoagoa da Gabon kantuak kalerik kale eta etxerik etxe abesten ibiltzea, sari-eske eta

guzti. Asko zabaldu da hori, batez ere Olentzero gure artean orokorra egin denetik. Gaur egun ia ez dago herririk edo auzorik, halakorik egiten ez duenik.

Gabon egunean hasi eta Erregetara arte da Gabon zikloa bete-betekoa. Gabon-Eguberri eta Gabonzahar-Urteberri egunak familiak elkartu, afari-bazkariak elkarrekin egin eta ospakizun giroan igarotzekoak dira. Ziklo horri amaiera ematen dio Epifania edo Erregeen egunak. Bai Urteberri, bai Erregeen egunean umeez ohitura izan dute kantu edo errezitadu bereziak eginez etxean eta auzoetan sari-eske ibiltzeko.

Gabonak igarota, San Anton egunean, urtarrilaren 17an, animaliak eta lurrak bedeinkatzea egiten da. Otsailaren hasieran Inauteri aurreko jai-ospakizun batzuk datoz: otsailaren 2an Kandelario, 3an San Blas eta 4an Santa Ageda bezpera. Hortik jarraian Aratuste edo Inauterien zikloa hasten da, egunak urtetik urtera apur bat aldatzen badira ere.

Egutegiaren barruan urteko zati hori aztertuko dugu lan honetan.

2. UDAZKENA ETXE GIROAN

Udazkena, eguna laburtzearekin batera, soroko lanak bukatuta, etxera eta barrura begira jartzeko garaia da. Izenak berak dioenez, udaren azkena, amaiera da, eta baita neguaren ataria ere.

Basoetan zuhaitzei hostoen koloreak aldatu eta jausi egiten zaizkie, natura biluztu egiten da, hurrengo zikloari apurka-apurka hasiera ematen zaiola.

Gaur egungo beste argi eta sugarri ez zegoen denboretan, sarritan auzoek elkar hartzen zuten, edo elkarrekin lanak egiteko, edo bide batez erregaia aurrezteko. Garai honetan



1

Udazkena

joaten ziren basora ira eta azpigarrien bila eta negurako egurra ekartzera. Era horretako lanak egiteko ohikoa izan da, XX. mendearen bigarren erdira arte, auzoak elkartzea. Emakumeak etxe batean batzen ziren gehienetan, josteko, artazuriketara, ipuinak eta kontuak esateko eta abar. Otoitzak leku handia izan du halako tertulietan, sarri errosarioa errezatzen zen lanak egin bitartean; hildakoen arimen alde, ekaitzak ez jotzeko, halako santuaren eguna zela eta...

Udazkenean egun berezi bi nabarmenduko ditugu: Domu Santu eta San Martin. Domu Santu, azaroaren 1ean, santu guztien eguna izanik, eta neurri batean hurrengo eguna Arimena, etxeko hildakoak gogoratzeko egunak dira. Kanposantuan hilobiak garbitu, lorak eta argiak ipinita apaindu eta aurretik joandakoen alde otoitz egiteko eguna izan da. Familia osoa elkartzen da, egun horretan kanpoan bizi diren seme-alabak eta senitartekoak ere etxean batzen dira. Gogoan hartu behar da gure kulturaren familia etxeok osatzen dutela, eta etxeko horien artean hilak eta biziak denak sartzen dira. Hil ondoren ere, *etxekoa etxeko*.



2

Kanposantua Domu Santurako apainduta

San Martin eguna, azaroak 11, animaliekin lotuta dago. Zenbait herritan artzainak menditik herrira jaisteko garaia da, negua beheko larreetan igarotzeko. Eta etxean ardirik izan ezean, orduan erosten zitzaizkion artzainari bizpahiru ardi zahar, gero neguan zehar etxean hil eta jateko.

Baserri gehienetan txerriak hazten zituztenean, San Martin inguruan hasten zen hiltzeko garaia. Azarotik martxora bitartean hiltzen dira txerriak, beti ere ilbeheran, urte osorako jana ziurtatzeko. Etxean txerria hiltzea gauza handia izan da, ortuariekin nahastean janaria hornitu eta udako uzta berrira arte irauteko. Txerrikiak: urdaia, odolosteak, urdaiazpikoak, txorizoak, solomoak... indaba, aza eta patatekin batera, izan dira etxe askotako oinarritzko elikagaiak. Etxe batean zenbat txerri eta zer pisutakoak hiltzen ziren, estatus ekonomiko eta sozialaren erakusgarri izan zitekeen. “Txerria hiltzen duten lekura ezkondu da” esaerak baten bat etxe onera ezkondu dela adierazten du.

Ohikoa izan da etxekoen eta auzokoen artean txerrikiak elkarri banatzea. Opariaz gainera, truke horren bitartez



3

Odoleste eta buzkantzak

janariak luzaroago irautea du horrek helburu. Hori oinarri hartuta, Bizkaian badago esaera bat: “odolosteak ordeaz”. Horrek esan gura du, norberak zer egin (ona zein txarra), besteek ere horixe egingo digutela.

Galsoroak prestatu ahala, San Martin egunaren inguruan ereiten zen garia ere gure baserrietan. Horregatik dio esaera zaharrak: “San Martin ederra, ogia bota lurrera”.

Herri-kulturan asko agertzen da santu hau gure artean, *San Martin txiki* moduan askotan. Tradizioak dioenez, zuhurra ere zuhurra zen. Jentil eta basajaunei trikimailuen bitartez kendu zien jakituria, eta horri esker ezagutu ditu gizakiak lurra lantzeko hainbat gauza: gari-hazia, artoa noiz erein, zerra zelan egin, errotarria nola dabilen...

Horren erakusgarri da hurrengo adibide hau. Esaten da deabruak ikazkin bati lagundu ziola eguneko beharra egiten eta saritzat arima eskatu ziola. Horren ordeaz, San Martinen kantua esateko aukera opatu zion eta hori aukeratu zuen ikazkinak. Hala ere, deabruak beti tentatu egiten du eta, hamabigarrenera heltzean, “Hamahirugarrena?” itaundu zion Martini. Eta hark “Ez dok hamahiru” esaldi ospetsua erantzun.

SAN MARTIN HERRI TRADIZIOAN

Zemendian San Martinek orio zaragiak aurretik zein atzetik botaten dauz.

Negu ona izateko, San Martinetako hiru biderrez edurra egin behar dau.

Egiazko negua, San Martinetan hasten.

Jaun done Martinen zaldiari, olorik emon ez.

San Martin (11an) zegaz, San Roman (18an) haregaz eta Santa Katalina (25an) beragaz.

San Martin, beharrak beharra eragin.

San Martin logizu, ondoko urtea garizu.

San Martin, negua atzetik edo aurretik, gehienezan bietatik.

San Martin uda, uda txiki.

Horreri be etorriko jako bere San Martin.

San Martinetako berakatzak egin.

San Simon eta Juda zerekin, San Martin harekin.

Txarri guztiei heltzen jake San Martin eguna.

SAN MARTIN ETA BASAJAUNA

San Martinek Atauna etorri zanean ez ekian herriko ez nekazaritzako berri. Eliza bat nahi zuen zelai batean egin, ibarraren une zabalenean. Basajaunak muino gainean (gaurko kanposantuan) egitea nahi zuen. Egunez honek egindako lanak, gabez San Martinek ibarrera ekarri ohi zituen. Gau batean atso bat zegoen zelatan. San Martinek bere uztarriari:

*Aida txuria, aida gorria,
horrako zelatan dagoen atso horri
ateraiok begia.*

Idi batek bere adarrez atera zion atsoari begia.

Eliza egin zuen San Martinek, bainan bertako zerbitzariantzat ez zuen ez laborerik ezta sororik ere. Basajaunari laguntasuna eskatu zion, baina alperrik. Hau saltoka zebilen galazi gainean. San Martinek, hura hala ikusita, iztar gueneraginoko polainak egin zituen eta berak jantziak zituela:

–Nik ere hik bezala egingo diat –esan zion Basajaunari.

Saltoka hasi zan bera ere pilo batetik bestera eta polainak galaziz bete zitzaizkion, garia lapurtu zuen.

Gero galde hau egin zion:

–Noiz ereiten da garia?

Basajaunak, irri ta barre artean, lagunai ze berri zen jakinarazi eta esan zien:

*Orri-irtete, arto-ereite;
orri-legorte, arbi-ereite;
orri-erorte, gari-ereite.*

San Martin bitarte haretan gordeta zegoen eta gordetik aditu zituen Basajaunaren hitz hauek. Eta harengandik ikasita berak ere garia erein zuen eta harrezkero ederki elikatu ahal izan zituen elizako zerbitzariak. San Martin honen eguneko errezua hau izaten omen zan:

“Janak on daigula, edanak gaitzik ez; gorputzak osasuna, animan kalterik ez”.

ANTONIO ARRUEBARRENA, Ataun

Resurrección María de Azkue: *Euskalerrriaren Yakintza, II*, 310-311 or.

San Martin errementaria zan, eta mutila eukan mailukaria, eta berau bota eban kalerik kale esaten: San Martinek atera dau galdea.

Inpernuko deabruak entzun ebanean San Martinek galdea atera ebala, esan eutsan: ez, bota ez baleutso buztinea edo harea.

Hori entzun ebanean, joan zan arin mutila San Martingaine.

San Martinek orduan bota eutsan buztinea eta harea; orduan atera eban galdea.

MATÍAS DE ARANAZ, Kortezubi, 1921

Jose Miguel Barandiaran: *Eusko-folklore* 1925, 47-48 or.

Udazkenean beste santu batzuek ere badute euren jaieguna, gehienak neguaren hasierarekin lotzen direnak. Santa Zezilia, musikariaren zaindaria (azaroak 22); San Andres (azaroak 30); San Frantzisko Xabierkoa (abenduak 3); San Nikolas (abenduak 6); Ama Birjinaren Sortze Garbia, amaren eguna, (abenduak 8); Santa Luzia (abenduak 13), jostunen zaindaria, besteak beste, egun handiak dira lekuan-
-lekuan. Gremioetako taldeak elkartu eta ospatzeko egunak izateaz gainera, feriak egiteko (Zumarragan Santa Luzia) eta Abendu aldian sartzeko ere badira.

Aurretik aipatu ditugun santuak eta eguraldia lotzen dituzten esaera asko dago, gure herri-esaeren corpusa ugaria da horretan. “San Andresko elurra, neguaren abiadura” urtea negua eta uda, bi urtarotan bakarrik banatzen dituen eguraldi-egutegiaren erakusle dugu. Edo beste hau: “San Andres, entremes, goizean azaroa ta arratsean ez”.

Urteko egunik laburretarikoa dela eta, hainbat esaera daude Santa Luziaren gainean: “Santa Luzia eguna, argia gabe iluna”, “Santa Luzia, goizean iluntzia”.

3. NEGUA

Negurako janaria zen garai batean ardura nagusia. Garia ereinda zegoen, baina hortik lortuko ziren aleak batzeko, hileak igaro behar ziren, eta sarri aurreko urteko generoa agortuta zegoen. Horregatik, egunean egunekoa lortzea zen kezkarik handiena, batez ere kaletarren artean.

Neguan egunak laburrak dira, ez dago apenas lanik soroetan, ez dago alogerarik eta aurrera egin behar da etxeko generoarekin: txerrikiak, patatak, aleak, taloak jaten. Oiloak edukiz gero arrautzak ere egoten ziren eta baita gaztainak eta intxaurrek ere. Beste horrenbeste esan daiteke mahats eta sagarrekin egindako edariez, etxean egindako txakolin, sagardo eta ardoa ere prest dago kupel, upa edo barriketan.

Elikagaiak lurretik eta etxeko abereen bidez zuzentzeak garrantzi handia eman die halakoak babesteko egiten diren erritoei. Horregatik, baserri giroan ohikoa izan da lurrak eta ganadua bedeinkatzea (San Anton, San Blas...), edo etxea

zaintzeko kandela eta argiaren inguruko erritoak egotea (Kandelario, San Blas).

Jende askoren larritasun horrek neguko folkloerari ezaugarri berezia ezarri zion: errondak eta postulazioak egin eta ordeztatekoak eskatzea edo ematea: opariak, urdai-txorizoak, arrautzak, fruitu naturalak, ogi-gaztak...

Saso honetan jatekoak batzeko eske-erronda asko egiten dituzte, ume, gazte eta helduek hainbat egun seinalatutan: San Nikolas, Gabon, Urteberri, Erregen, Santa Ageda, inauteriak...

Herri-egutegian, ospe handiko ziklo bi sartzen dira bete-betean neguan: Gabonetako zikloa, neguko solstizioarekin bat egiten duena, eta inauterietakoa, udaberriari deia egiten diona.

4. GABONETARAKO SARRERA ETA ABENDUA

Beste jai batzuen aldean, Gabonak ziklo bat dira, hil bat luze, jaiegunez ziprztindua. Hogeita bostean ospatzen da Jesusen jaiotza, baina ez historikoki hala izan delako, antzinako erlijioetan solstizioari lotutako hainbat ospakizunek bat egiten dutelako baino. Kristau giroaren barruan Gabon eta Natibitate esaten bada ere, Eguberri ere esaten da. Hau da, Jesusen jaiotzaren kristau kutsuari dagokion terminologia egun/eguzki berria datorrela iragartzen duen hitzarekin batera erabiltzen da gure artean.

Elizak *abendualdia* deritzo Gabonetara hurbiltzeko aurreko lau asteek osatutako aldiari.

Gabon-gabonzahar bitartean osatzen den hamabi eguneko zikloan Gabon eta Eguberri, Urteberri eta Erregen dira zeremonia aldetik multzorik korapilotsuena eta unerik nabarmenenak. Baina bitarte horretan dira inozenteen eguna eta gabonzahar, lizentzia-uneak erromatarren garaitik hona. “Abenduko askatasun jaia” zen aldi batean, orgia sakrilegoa eta gauzarik santuenak profanatzeko garaia. Erromatarren Saturnaliaren bariantea edo bilakaera izango litzatekeena.

Tarte horretan sartzekoa da San Esteban ere, gure herri pentsaeran esaerak eman dituen: “Natibitate, ase ta bete; San Estebantxo, len bezelantxo”.

SAN NIKOLAS

Abenduaren 6an San Nikolas Barikoaren eguna ospatzen da, toki batzuetan San Nikolas Txiki esaten zaiona. Hainbat herritan umeek etxerik etxe eske-erronda egiten dute ume bat gotzain jantzita daramatela taldean. Antzinean elizako erakundeekin zerikusia zuten mutil



San Nikolas, Segura, 1988



6

Agurainen San Nikolas ospatzen, 1977

gazteak ibiltzen ziren errondan, gerora ohitura umeen artera igaro bada ere. Inozentziaren adierazgarria da, gizarteko alderik apalena jasoenaren aurrean jarrita. Erdi Aroan umeak zoro eta leloekin parekatzen zituzten, eta San Nikolas haien patroia izan zen zenbait arlotan.

Lurraldeei erreparatuta, ospakizun hau Hego Euskal Herrian zabal eta nahiko orokorra bazen ere, gaur egun Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako zenbait lekutan baino ez dago bizirik. Eskaleok era honetako kantuak egiten dituzte:

San Nikolas ttikia

gure ganbaran hazia:

–Gure ganbaran zer dago?

–Andre Juana Maria,

ave, ave Maria.

Dios te salve, bakalaojale,

bost eta sei hamaika.

Txorizorikan ez baldin bada

igual dela lukainka.

OIARTZUN

MARIJESIAK

Marijesiek ere Gabonak datozela iragartzen dute. Abenduaren 25ean amaitzen den bederatziruena egiten dute marijesiak kantatzen dituztenek. Egunero-egunero kantuan ibiltzen dira etxerik etxe, eta kalerik kale. Adan eta Evagandik hasi eta Jesus jaio arteko historia santuko pasarteak azaltzen dituzte. Elizatik aparteko ekintza bada ere, baliteke sorreran abade-fraideek eragina izatea. Elizetan jaiegun seinalatuetan antzerkiak, antzespen semiliturgikoak egiten ziren aldi batean. Baina, horren



7



8

Marijesiak Ea eta Gernikan, 2012



9

Gauegiz-Arteagako Marijesiak, 2012

aitzakian gehiegikeriak egiten hasi omen ziren eta, ondorioz, aita santuak galarazi egin zituen. Horren ostean kanpoan egiten hasi ziren antzesperek. Zuberoako pastoralak ere jatorri hori daukala esan izan da.

Marijesiak izena kantuan esaten den «Maria, Jose» esalditik dator. Beste izen batzuk ere baditu: *Abendu*, izan ere, kantuaren hasieran «Abendu santu honetan» esaten da; eta baita ere *Kebomikoak*, kantuaren barruan estrofa bateko «¡Ay, qué bonito niño!» testutik moldatuta.

Gaur egun ezagunenak Gernikakoak dira, egunero goizaldeko lauretan hasi eta seiak arte herriko auzoetatik kantuan ibiltzen direnak. Ibilian kantatzen dute, bakarlariak aurretik eta taldeak ostean, baina leku jakinetan gelditu eta bertan abesten dute: eliza, komentu, bakarlari izandakoen etxeen aurrean... Gauegiz-Arteagan gaztetxo nerabeek abesten dute iluntzean beste horrenbeste egunez, taldean denek batera, eta ez ibilian, etxe aurreetan baizik. Eta Ean umeak ibiltzen dira iluntzean, iladan jarrita, bakarlariak lehenengo abestu eta taldeak erantzuten duela. Elizetan geratu eta belauniko jarrita abesten dute.

Kantuak ez dira berdinak, antzekotasun handiak badituzte ere. Baina hiru herrietan egiten dute banaketa: lau egunetan ‘Abendu santu honetan’ kantua, beste lau egunetan ‘Jesukristo’ deritxona eta azkenekoan, 24an, ‘Bart Belenen’ izenekoa. Azken hori egunez egiten da eta etxerik etxe eskean ibiltzen dira.

Beste leku batzuetan abenduaren 23an, Gabon bezperan bakarrik irteten dira kantariak, egun bakarreko eske-erronda egitera.

Gaur egun errondarik egiten ez den hainbat herritan ere, Marijesien koplak batu izan dira. Horrek esan nahi du ezagunak izan direla, nahiz eta lekuko horiek errondaren beraren gomutarik ere eduki ez.

Marijesietatik aparte, Gabon egunean errondak egitea ohikoa izan dugu eta orain ere halaxe da Euskal Herri osoan. Lekutik lekura koplak, doinuak, kantuak aldatu egiten dira, baina demokraziarekin batera euskal tradizioaren ikur gisa Olentzero denera hedatu zenetik, nekez aurkituko dugu herririk halako errondak egiten ez dituenik.



10

San Tomaseko azoka Bilbon, 2012

SAN TOMAS

Abenduaren 21ean, Gabonen atarian bertan ospatzen da San Tomas. Azoka handiak egiten dira gaur egun ere egun horretan. Baserritarrek beren ortuariak eta animaliak saltzera eramaten dituzte. Baina ez saltzera bakarrik, XIII. mendetik hasita dokumentatuta dago maizterrek jauntxoei urteko zergak ordaindu behar eta Gabon inguruan zerga opariak egiten zizkietela. San Tomas egunean hirietan egiten diren azokak izaten ziren maizter-jabe askoren topalekua, eta ordainketa bera genero bidez egiten zen. Kasuan-kasuan animaliak (kapoiak, oiloak, untxiak), barazkiak eta dirua izaten zen.

5. OLENTZERO ETA EGOBERRI

Gabonak, Jesusen jaiotza ospatzeaz gainera, familia-giroan bizitzeko jaiak dira. Kanpoan lanean ziharduten seme-alabak, askotan urte osoan etxera joaten ez zirenak, Gabonetan baimena izaten zuten etxekoekin jaiok ospatzeko. Halakoak ziren hirira zerbitzari edo morroi joandako asko eta asko. Herrira bakailaoa bizkarrean zutela itzultzen ziren. Etxeko umeak pozarren egoten ziren, herri handietan eta hirietan aukera edo komenientzia gehiago zegoenez, beti eurentzako jateko bereziren bat ekartzen zutelako. Orduan ohikoa izaten zen mazapanez eginiko gozokia.

Gabon-Eguberrietako afari-bazkariak elkarrekin egiten dituzte familiek. Ahal den neurrian, gainera, menu berezia prestatzen da, lekuan lekuko berezitasunekin. Bada kantu bat menu hori jasotzen duena ere:

*Gabon gabeen ohituten dogu
guztiok afari ona;
bixigu, legatz, makallau-saltsa
bakotxak berak ahal dauna.*

*Gero txurrunplinplan
ardau ta pattarra
katuak hartuta
zabu-zabuka.*

Bijilia eguna izaten zenez, olio-aza eta bakailaoa edo bisigua jaten zen asko; eta postrerako gaztainak, fruta-konpota eta antzekoak, intxaur-saltsa kasurako, etxeko generoa erabilia.

Hori ohiturazkoa izan bada ere, berriagoa dugu gabonzahar-urteberritan ere beste horrenbeste egitea. Gero eta zabalago dabil, familian edo lagunekin afaldu eta gero kalera tabernetara irtetea. Baita afaria bera etxetik kanpo egitea ere.

Gabonetan era askotako ezaugarriak jartzen dira agerian, ez gure artean bakarrik, orokorrean baino, baina bereziki urteko garai honetan daukate agerpenik handiena. Halakoen artean sartzen ditugu: elkarri zorionak emateko postalak idaztea edo gaur egun telefono bidez mezuak bidaltzea, etxeak eta kaleak apaintzea Gabonetarako apaingarri bereziekin, argiak nahinon jartzea, etxeetan jaiotzak eta gabon-zuhaitzak jartzea, loteria jokatzeko, opariak egitea, garai horretako kanta bereziak...

Gabonak aberatsek pobreei –*daukanak ez daukanari*– limosna emateko sasoia izaten zen, eta eskeko asko ibiltzen zen etxerik etxe. Baina ez horiek bakarrik, ume eta gazte askok ere ospatzen zuten Jesusen jaiotza, bide batez sabela betez. Leku batzuetan, Olentzero lepoan

hartu, koplak abestu eta eskean ibiltzen ziren. Arabako herri batzuetan jaiotza txiki bat eramaten zuten umeen artean, kantuan eta eskean ibili eta, bakoitzak bere otzaran gaztainak eta sagarrak batzen zituen bitartean. Bastidan artzainen erronda antzesten dute Eguberri egunean. Orkestra txiki bat eratuta hainbat kantu mota egiten ibiltzeari *Aurora* esaten diote. *Aurorak* gabonzaharretan ere egiten dira, eta urteko beste egun seinalatu batzuetan ere bai. Gipuzkoan ere afal ostean gazteak elkartu eta kantuan ibiltzea ohikoa izan da.



11

Bastidako artzainen prozesioa

Halako eske-kantu eta ibilaldiekin lotu behar da Olentzero ere. Nafarroan, Pirinio azpiko lurraldean batez ere, Nafarroa eta Gipuzkoako herri mugakideetan dauka berezko jatorria pertsonaia horrek. Hango sinboloa da, baina ez gaur egun ezagutzen dugun moduan.



12

Olentzero Lesakan, 2012



13

Gabon kantuak, Donibane Lohizune, 2007



14

Bizarzuri, Zarautz, 2003

Olentzero euskaldunen pentsamenduaren bilakaeraren erakusgarri ona da, solstizioen antzinako kultuaren aztarnak kristau tradizioko ezaugarriekin nahasten baititu. Urtea amaitzera doa, baina *berria* etorriko da, aldi *berria* sortuko da; gaizkiari agur egin eta bizitzako balore onei bidea egiteko unea da. Naturaren *berrizte* horri Jesusen jaiotzaren albistea gehitu zaio, eta horren berriemaile bihurtu da Olentzero.

Abenduaren 24an goizean etxe aurreetan panpina jarrita argitzen zen eguna, goizaldean aterata, eguna argitu aurretik behinik behin. Sarritan igitaia eskuetan zuela ipintzen zuten, edo igitaia bera bakarrik haren esanguran, eta umeei hozka egiten zuela esaten zieten; beldurgarria zen, beraz. Beste herri batzuetan Olentzero sukaldean, tximiniaren ondoan, eta beste batzuetan etxe aurrean ate-bentanetan jartzen zuten etxearen babesle.

Kantuetan ere ikusten da Olentzeroren irudia ez dela hain atsegina. Honako ezaugarriak aipatzen dira: begi-gorri, beldurgarri, tximiniatik sartzen dena, arlote, jatun asezin, edatun, igitaiarekin lepoa mozteko mehatxu egiten duena... Horrez gainera,

herrien arabera ogibide desberdinak izendatzen zaizkio: ikazkin, artzain, marinel.

Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako sortaldean guttiz ezezaguna zen 70eko hamarkadara arte. Ordutik berbiztu egin da pertsonaia hau, baina tradizioz izan ez dituen ezaugarriak erantsi zaizkio, beste herrialdeetako Noel, San Nikolas eta Erregeen tankeran, besteak beste opariak ekartzea, bezperan zapatak jartzea, gutuna idaztea opariak eskatzeko...

Izena dela eta, jatorria zein den ez badakigu ere, Gabon hitzaren parean erabiltzen da: Olentzero-gau, Olentzero-enbor, Olentzero-afari... Esaeretan ere agertzen da: “Olentzeroz leihoan, Pazkoetan sua”, “Olentzero gauerdiko hegoaizea, berrogei eguneko haizea”.

*Olentzero guria
ezin degu ase,
bakarrik jan dizkigu
hamar zerri gazte;
saiheski ta solomo
tripazaiak haste,
Jesus jaio dalako
konsola zaitezte.*

6. NEGUKO SOLSTIZIOKO ERRITOAK

Gabon gauaren ezaugarrietako bat sua izan da. Sua eguzkiarekin lotzen da, eta sanjoanetan bezala, sua egiten izan da Gabonetan ere; solstizio garai bietan, beraz. Esaera batek lotu egiten ditu egun biok: “Gabonetan plantxan, sanjoanetan plazan”, eta lotura sua da.

Gabon gauez Gabon-enborra sutan erretzen zen. Hainbat izen ditu enbor horrek: xubilaro, Gabon-subil, Natibitate-subil, Olentzero-enbor, Gabon-zuzi, Gabonetako egur, Jainkoaren egur... Udazkenean mendian enborrik lodienetako bat apartatzen zuten, Gabon gauean beheko suan jarri eta goizera arte itzali gabe iraunarazteko. Esangura magikoa zeukan, sakratua ia, familia osoa haren inguruan elkartzen zela. Beheko suak galdu ahala, ohitura ere galtzen joan da.

Horrez gainera, familiako kide bakoitzak egur bat botatzen zuen sutara, eta gehiago botatzen ziren defuntuen, eskekoen eta etxerik ez zutenen oroimenean. Halakoek, dena den, herritik herrira aldaketak izaten dituzte.

Etxe batzuetan enbor-zati bat gorde egiten zen, antza, ekaitz egunetan ateratzeko, baita gaixotasun eta zoritxarren kontra erabiltzeko ere. Sua gabonzahar egunean ere egiten zen hainbat lekutan, eta aukera izaten zen gauza zaharrak bertan erretzeko, urte berriari agurra egitearekin batera. Arabako zenbait herritan zahagiari sua eman eta “urtetari ipurdia erreko ziotela” esanez, kantuan eta dantzan ibiltzen ziren. Bertako errautsekin etxe-atariak beltzez zikintzen zituzten.

Errito hauetan, siniskerekin lotuta, magia kutsu bat ere antzematen da. Naturak heriotzaren kontra egiten duen borrokan, gizakiak goragoko laguntza behar du, babes magikoa. Urte berria prestatzeko, zeremoniak behar dira aro berria edo udaberria garaile irten dadin. Horregatik Gabon sasoiaren suari, urari eta ogiari ahalmen bereziak onartzen zaizkie; kasurako, Gabonetako ogiak osasunerako botere onak ditu; ogia gorde ekaitzetik babesteko; urteko azken egunean gauerdian batutako urak indar magikoa du eta edaten duenaren babesle izan



15

Ogi-kuskurra gorde egiten da hurrengo urtera arte

liteke... Gabon aldiak berak ere badu eragin berezia: Gabon zer astegun den urtea halakoa; Gabonez jaiotako umeak bereziak izango dira; oparotasunerako otoitz eta konjuruak egiten dira; aleak bedeinkatu uzta ona izateko, etab.

Guztiz zabaldurik egon den beste ohitura bat *ogi saluatdua* edo *ogi bedeinkatuarena* da, batez ere Bizkaian eta Araban. Gure artean etxe gehienetan familiako buruak Gabon afariko ogiari kuskurra kentzen zion, gainean kurutzea egin, leku batzuetan ardo-tanta batzuekin busti, eta hurrengo urtera arte gordeta edukitzen zuten. Ogi hori ez omen da urdintzen. Etxe batzuetan abereei ematen zieten ogi hori, amorruren edo bestelako gaixotasunen baten kontra ona zela eta. Beste batzuetan, ordea, etxekoen artean banatzen zuten.

Sasoi hau eguraldi-iragarpenak egiteko aldia ere bada. Ez da normala garai horretan eguraldi ona egitea, eta sinestea dago, ona denean, Pazkorako txarra dakarrela atzetik. Gabon hotza izatea, aldiz, seinale ontzat hartzen

da. Europa osoan batuta dago, Gabon egunean hasi eta hurrengo hamaika egunetan egiten duen eguraldiak iragarten duela hurrengo urteko hileetako eguraldia nolakoa izango den. Euskarazko adibide batzuk ekarriko ditugu: “Eguberri ondorengo lehenbiziko sei egunak nolako, hurrengo urteko lehenbiziko sei hilabeteak halako”; “Eguberri gauerdian zer haize, hurrengo hiru hilabeteen haize hure”; “Eguberri ilargirik gabe, artzaina axuririk gabe; Eguberri ilargiak, artzaina axuriakin”; “Eguberritan eguzkia, Pazkotan elurra”; “Eguberritan ilbehera, ihauteriz ilberri”; “Urteberri zerekin, hilabeteko lehen egunak harekin”.

Bestalde, urte berria hasteko, eta haren berri ona zabaltzeko, urarekin zerikusia duten erritoak ere zabal ibili dira, aparteko indarrez Nafarroa aldean. Urdiaingo ohitura jaso zuen Jose Maria Satrustegik, esanez, gabonzahar gauerdian herriko gazteak elkartu eta herriko agintariei ura opatzen zietela hastear dagoen urtearen erakusgarri. Kopla batzuk abesten dituzte haiek bitartean, eta eskerrak emateko opariren bat ematen zaie.

*Urteberri berri berri,
zer dakarzu berri?*

*Uraren gainean bakea eta osasuna.
Eguberri zaharra, nik atorra zaharra,
maukarik ez, nik axolarik ez.*

Urtats!

*Aingeruak gara, zerutik heldu gara;
boltsa badugu, dirurikan ez dugu.*

Urtatsak behar ditugu!

Urtats!

Teoria batzuen arabera, Olentzero jatorrian urte zahar eta berriaren arteko denboraren pertsonifikazioa



16

*Dios te salve kantuan, Lezo, 1989ko
abendua ren 31*

zen. Izan ere, gabonzahar, urtearen azkeneko gaua, legerik gabeko unea zelako kontzientzia egon da. Gure artean ezezik, Europa osoan ere ohikoa izan da iluntze-gau horretan okerkeriak egitea. Gure herrietan herriko gazteek baserri batean edo bestean gurdia edo erreminak hartu eta arbola batean eskegi, edo plazaren erdian utzi eta halakoak egiten zituzten.

Gabonzahar-urteberritan alaitasun eta poz-erakustaldiak ohikoak dira, era batera edo bestera: errondak egin, kantuan ibili, kalean edo tabernetan elkartu, elkarri zorionak eman, tiroak bota, gaur egun su artifizialak ere... Opariak egiteko eguna zen, lehenago mutilek neskei urteberri egunez eta neskek mutilei Errege egunez egiten zizkieten opariak.

Kantuan etxerik etxe ibiltzea ohikoa izan da gure herrietan, Ipar zein Hegoaldean, sarritan tartean bertsolaria dela. Era honetako kopla nagusi batzuk abesten dira halakoetan:

*Dios te salve ongi etorri
Gabon Jainkoak digula,
Gabon Jainkoak digula eta
urte onean sar gaitzala.*

*San Silvestrek igortzen gaitu
izar eder bat gidari,
haren ohoretan heldu gaitutzu
gaurko gau huntan kantari.*

Taldeak koplak horiek abestu eta bakarlariak, bertsolariak, etxeokoa gai hartuta bertsoak egiten ditu, lehenago baita ezer ematen ez duenari bertso gordinak bota ere.

Askorentzat hauxe da inauterien hasiera.

7. ERREGEN EGUNA

Erregen egunaren jatorria erlijiosoa da, baina opari eta janarekin loturik dago. Ekialdeko magoak Jesus

jaioberriari eskaintzak egitera joan ziren moduan, etxeetan umeei opariak egiten zaizkie egun horretan. Gaur egun etxeoko guztiek izaten dituzte opariak, nahiz eta jaiaren umeentzat bereziagoa den.

Lehenago, ahalbide gutxiago zegoenean, gurasoek eurek eginda gurditxo bat edo trapuzko panpinaren bat izaten zen oparia. Eta sarritan hori ere ez, gaztaina edo intxaur batzuk izanda ere pozik. 60-70eko hamarkadetatik hona asko aldatu dira gauzak horretan. Opari asko egiten dira, baina gainera, eguna ere aldatu egin da. Orain normalagoa da opariak Olentzerok ekartzea, ume guztiak eskolara doazenez, oporrak amaitu aurretik jolasteko denbora eduki dezaten.

Gero eta gehiago errege-kabalgatak egiten dira herri-hirietan, eta erregeak eurak, gamelu eta guzti ikusten ditugu sarritan. Baina hori ere ez da beti horrela izan. Lehenago herrietan jendea arran eta zintzarriekin ateratzen zen, landetan zehar ibiltzera ere batzuetan; batzuk egunez, beste batzuk iluntzean. Horren helburua erregeei etxerako bidea erakustea omen zen.



17

Erregeek umeen opari-eskeak hartzen dituzte,
Gorliz, 2010



18

Zintzarriekin Erregei deitzen, Burgi, 1993

Baina ekintza horren zentzua lurra neguko loalditik esnatzearekin lotuta zegoen.

Era horretako erritoek inauteri kutsua daukate, geroago ikusiko dugunez; izan ere, ziklo batetik besterako muga labana da, udaberriaren etorrerarekin lotuta dagoelako dena.

Donibane Lohizunen Trufania gora handiz ospatzen dute. Baina badute beste berezitasun bat ere, Bestaberri ere orduan egiten baitute. Bestaberri udaberriaren izaten da, Aste Santu ostean eta haren araberrako egunean, baina Donibanen aspaldi, XV. mende amaieran edo XVI.aren hasieran, eskatu zioten Elizari baimena egun horretara aldatzeko. Izan ere, udaberriaren arrantzale asko eta asko Terranovara arrantzan joanda etxetik kanpo suertatzen ziren, eta horregatik neguan ospatzeko baimena eskatu zuten. Orduetik omen dator Erregen eguneko ospakizuna. Prozesio handia egiten da, hiru erregeak aurrean direla. Haiekin, aingeruak, pajeak, eta jarraitzaile talde handia, loreak eta intsentsua banatzen. Elizaraino joan eta eliza barruan egiten da ekitaldirik hunkigarriena, ordurako apaingarri guztiak aterata.

Erregen bezperan familia elkaturik, torta edo gozoki bat prestatzen zuten, barruan baba bat zeukala. Zatiak banatu eta jaten hastean, baba suertatzen zitzaion umea etxeko errege izendatzen izan dute etxe askotan. Hori Erdi Arotik datorren ohitura omen da, erregeak *Rey de la faba* titulua ematen zion ume bati Epifania egunean. Nafarroan erregeak berak ematen zuen titulua, umea errege janzten zen eta familiari dirua eta garia ematen zioten. XVIII. mendearen erdi ingurura arte iraun zuen ohitura horrek, lehenengo gortearen barruan, herriko jai bihurturik gero.

Gaur egun erroskoa Erregen egunean bertan jatea da orokorrena.

8. INAUTERI AURREKO JAIAK

Neguaeren bihotzean, Gabon eta Inauteri zikloen bitartean geratzen dira hainbat jai, inauteri zikloaren barruan kokatzen direnak normalean, aurrerapen antzera edo.

Era honetako tradizioko ospakizunetan esangura handia dauka eguzkiaren egutegiak, baina oraingo honetan ilargi-egutegiaren eraginpean gaude. Sasoi honetakoak dira Kandelario, San Blas eta Santa Ageda. Horiez gainera, beste batzuk ere badira tradizio lokalagoa dutenak, baina oso garrantzitsuak, San Sebastian Gipuzkoan eta San Anastasio eta San Vicente Araban kasurako.

SAN ANTON (URTARRILAK 17)

Santu hau ganaduaren babeslea da, horregatik diote baserritarrek hain estimu handia. Era askotako ospakizunak egiten izan dira egun horretarako: bezperan sua, jatekoak eta animaliak bedeinkatu, animaliak Gabon-subilaz ketu... Egun horretan ez zen etxeko abereekin lanik egiten, eta traturen bat lotuz gero, “San Antonek gorde dezala” esatea ohikoa zen.

Garai herrian (B) enkantea egiten dute egun horretan. Jendeak etxetik eramaten du generoa: txerrikiak, tostadak, indabak, oiloak, sagardoa..., mezan bedeinkatu eta meza ostean enkantea egiten dute. Deigarriena da bakoitzak gehien jokatzeko duela berak eramandako generoagatik. Era horretara, sarritan, norberak eramandako generoa etxera bueltatzen da



19

Etxeko generoen enkantea, Garai, 2013

berriro. Batutako dirua laguntzarako banatzen da, elizaren bitartez, elkarte edo talde jakin baten bitartez, hondamendiren bat egon danean harako...

KANDELARIO (OTSAILAK 2)

Egun horretan kandelak eta argizariak bedeinkatzen dira. Garai batean bedeinkatutako kandelak, leku kutunen batean gorde eta urtean zehar erabili egiten zituzten, apartekorik egonez gero; Jaungoikoak emaniko indarra zeukatela eta. Etxekoek aparteko babesa behar zutenean (tximista edo oinaztuak zirela edo, pizti txarren bat bazterretatik zebilela edo), kandela piztu eta parte txarreko denak uxatu egiten zituela sinistuta zeuden. Bedeinkatutako kandela eta argizari horiek etxekoren bat hiltzen zenean ere erabiltzen ziren, gaubeilan eta gorpua etxean zegoen bitartean haren alboan ipinita. Horrez gainera, igandero etxeko hildakoen elizako hilarriaren gainean isiotzen zituzten.



20

San Anton eguneko zozketa, Gasteiz, 1987



21

Kandelario, Gernika, 2013

Kandelario egunaren inguruan esakera ugari dago, hemen batzuk:

Kandelario, lario, hatxari ura dario; erroteari uruna, hauxe da guk behar doguna.

Kandelario, lario, lario, hatxari ura dario; makatzari madari, eutsi Peru hankeari.

Kandelarioz eguzki, negua dago aurretik; Kandelarioz edurra, joan da neguaren bildurra.

Kandelarioz euria, laster da udabarria; Kandelarioz aterri, negua dator atzetik.

Kandelari hotza, neguaren bihotza. Kandelari bero, negua da gero.

Kandelario, edurra dario. San Blasek lagunduko dio.

Kandelario egunean eguzkia ikustea baino, otsoa ardi artean hobe.

SAN BLAS (OTSAILAK 3)

Kandelario egunaren hurrengoia da San Blas. Egun horretan ere bedeinkazio bereziak egiten dira. Eliza eta ermita batzuen inguruetan, hari eta domina ezagunez gainera, gozoki, fruta, erroskila eta opilak saltzen dituzte, horretarako berenberegiz ipinitako dendatxoetan.

Gehienetan andrazkoek eroaten dituzte elizara hari eta jatekook bedeinkatzera. Eztarriko gaitzik etorri ez dadin, haria bederatzi egunean eramaten da lepoan jarrita. Aldi hori egin eta gero, etxeko sutan erre behar da, Aitaren egin eta salbea errezatu ostean. Bedeinkatutako gozoki, ogi, fruta eta jateko guztiak urte barruan jateko izaten



22

San Blas, Tarara edo Txulalai dantza, Paganos, 1981



23

Ganadu-feria, Abadiño, 2013

dira, eztarriko mina kentzeko. Bedeinkatuta daudenez, fruitu eta jatekook ezin dira hor zehar bota; estalgarria edukita ere, erre egin behar dira.

Ganaduak-eta etxekoak direnez, leku batzuetan San Blas egunean bedeinkatu egiten dira, eta ez dute lanik egin behar izaten. Sarri hari bedeinkatua ipintzen diete eta Hausterre egunean erre.

Egun horri lotutako esaerak:

*San Blas, bedeinkatutako haria saman ipini eta,
eztulak blast!*

San Blas, doministikuka ito behar naz!

San Blas, ito arte arnas!

San Blas, itoko ahal haz!

*San Blas, ona bahaz biziko ahal haz; txarra
bahaz, tragauko ahal haz!*

Blas guren, aitzina edo gibel.

*Idiek eztula eta San Blas; aitonak eztula eta, itoko
ahal haz!*

SANTA AGEDA (OTSAILAK 5)

Tradizioak dioenez, Santa Ageda Sizilian jaio zan III. mendean. Orduko Quintianus gobernadoreak berarekin ezkondu gura izan zuen, baina hori hala izango bazen, andre horrek kristauen fedea ernegatu behar zuen. Santa Agedak, ostera, ez zuen halakorik egin nahi eta, ondo zigortu eta ostean, hil egin zuten. Bularrak ebaki zizkieten; horregatik, herri-tradizioan bularreko gaixoen eta, andrazkoen gainerako gaitzen babeslea dugu Santa Ageda.

Herrian ospe handikoa da santa hau eta bere irudia abesti eta esaunda askori lotuta dago; hauek ezagunenetarikoak:



*San Blas eta Santa Agedako feriak, mutil-neskatxen
ezaupideak.*

*Santa Ageda santea, Muniketako lorea; martirioak
pasau zenduzan zaindutearren fedea.*



24

Santa Ageda abesten, Mungia, 1968



25

Santa Agedako taldea, Ozaeta, 1977

Santa Ageda bezperan, arratsaldez, errondea egiten da. Herririk gehienetan taldeak kalera irten eta kantuan ibiltzen dira, kalerik kale, aterik ate.

Araban mutil gazte ezkongabeen zaindaria zen, horregatik halakoak ateratzen ziren errondan. Herriko gazteriarekin lotura handia duen martiria da, batez ere Araba aldean, eta herri askotan egun horretan beren jaieguna ospatzen zuten.

Nafarroan ohikoa zen kanpaiak jotzea gau horretan, ez ordea kantuan ibiltzea; hori mendebaldeko ohitura izan da gehiago. Hala ere 60ko hamarkadan usadio hori denera zabaldu zen eta hala jarraitzen du.

Julio Caro Barojak erromatarren *Matronalia* jaiekin lotzen du Santa Agedaren ospakizuna. Izan ere, matronalia emakumeen jaia zen, emakume ezkonduena batez ere. Senarrek opariak egiten zizkieten emazteei egun horretan, eta emakume esklaboen jai eta askatasun eguna izaten zen.

Hona hemen Ixidor Baztarrikak jasotako koplak sorta luzetik, etxeakoak koplatzeko eredu batzuk:

Sarrera

*Dios te salbe, nere lagunak,
gau on Jainkoak diela,
gau on Jainkoak diela eta
bihar egun on diela.*

Nagusuari

*Hasiko banaiz, hasi nedila
nagusi hori koplutzen,
zaldie dago silatzen,
lau ointxoetan perratzen;*

*etxe hontako nagusi jauna
zaldiz da eleizeratzen.*

Etxeko andreari

*Baratzan eder txermena,
ondotik gora lerdena;
etxeako andrea koplak dezagun
nagusiaren hurrena.*

Nagusi gazteari

*Orain aurrera goazen
nagusi gaztea koplutzen.*

*Usoak dira kotara,
nere begiak lotara;
nausi gaztea oraintxe goaz
berorren koplaketara.
Mutil gazteak
Iruñak bado zerkea,
zerka barruan dendea;
merezi do ta koplak dezagun
hemengo gazte jendea.*

*Preskorik zaude preskorik,
ez al dezu ezkonasmorik?
Goierrri hontan ez tet barrunda
holako maiorazgorik.*

Neskari

*Sazerdoteak garbitzen ditu
meza emateko eskuak;
dama gazteak, esango ditugu
zuen merezimentuak.*

9. INAUTERIAK, ARATUSTEAK, KARNABALAK

Hausterre aurreko hiru egunak izan ohi dira. Egun horietan jatorri eta helburu ezberdineko jarduerak eta ohiturak pilatzen dira, baina denetan sartzen dira txantxak, askatasun neurri gabekoa –bai janarietan, bai jokabideetan–, antzezenak, dantzak, eske-ibilaldiak eta panpinak erre edo apurtzea.

Inauteriak paganismoaren adierazpena dira, kristautasunarekin aurrez aurre. Gizarte osoak dauka horretan lekua: lanbide, gizarte-maila eta pertsona mota guztiak daude ordezkatuta. Izan ere, gizarte osoak parte hartu du inauteriak diren moduan izan daitezen.

IZENA

Euskarak bide ezberdina egin du ekialdean eta sartaldean Karnabal edo Carnestolendas adierazteko ordainak sortzean. Larramendik bere hiztegian (1745) *aratuzteak*, *inoteriak*, *inauteriak* eta *zanpantzartak* izenak jaso zituen. Resurrección M^a Azkuek (1893) *Bein da betiko* lanean dio: “Emen *aratusteak* deritxe, Probintzia-aldean *inoteriak* edo *inauteriak*, Naparroan *iagoteak*”. Hala eta guzti, zabal-zabal dabil gure artean *karnabalak* izena ere.

Lurralde banaketa horrek izendapenaren jatorri ezberdina erakusten du. Inaute, Inote, Iote edota Zanpantzart izenek pertsonai izenak dauzkate oinarrian; Aratuste hitza, ordea, gaztelaniazko carnestolendas hitzaren kide zuzena dogu: haragi uztea.

Erabilerari dagokionez, aratuste, inauteri erabiltzen da, mugagabez, eguna adierazteko; eta sarritan konposizioan zehaztuta: aratuste-domeka, inauteri-astearte. Baina ziklo osoa izendatzeko, pluralaz markatzen da: aratosteak / aratusteak / aratisteak / inauteak / inauteriak, baita maileguzko karnabalak ere. Euskaraz hala egiten dugu gainerako jaiekin ere: eguberriak, andramariak, sanjoanak, sanantonioak...

IRAUPENA

Inauteriak kristautasunaren ondorioa dira, Garizumarik ez balego, urteko sasoi hori ez litzateke gaur egun ezagutzen dugun moduan izango. Egutegia urterik urtera aldatu egiten da. Aste Santuak agintzen du, Aste Santuko egunak ezarri eta horren aurreko Garizuma aldiko egunen arabera eratzten dira inauteriak.

Inauterien iraupenaren gainean iritzi desberdinak daude. Batzuek neguko solstizioaren barruan kokatzen dituzte, beste batzuentzat inauteri-zikloak berak osatzen du urte-sasoi berezitua, eta beste batzuentzat egun jakin batzuetara mugatzen da.

Zentzurik zabalenean hartuz gero, ikertzaileen eta ohituen arabera, inauteriak hasten dira: Gabon egunean bertan; urte hasieran edo Erregeen egunean; san Anton egunean; Kandelario egunean; san Blas egunean; Inauteri igandea baino hamabost egun lehenago...

Honen harira halaxe dio Juan Bautista Aguirre Asteasukoak: “Deitzen diogu onela urte berritik austerrerañoko denborari, eta beste leku batzuetan deritza: inoteriak, iauteriak, aratuzteak, zanpanzartak”¹.

1 JUAN BAUTISTA AGUIRRE: *Confesioco eta Comunioco sacramentuen gañean eracusaldia*. Tolosa: 1803.

Zentzurik estuenean hartuta, ostera, inauteriak hiru egun baino ez dira: igandea, astelehena eta asteartea; horixe da orokorra.

Edozein kasutan argi dago noiz amaitzen diren, hausterre egunean, Garizuma hasten denean. Hori ere, dena den, gaur egun ez da hain zorrotza. Izan ere, herri batzuetan hurrengo asteburuan ospatzen dituzte alboko herriarekin bat ez egitearren; eta maskaradek eurek ere maiatzera arte irauten dute. Hau da, nahiz eta inauteriek Garizumaren oposizioan hartu euren zentzu betea, Garizumak eta hausterre egunak beren indarra galdu duten neurrian luzatu egin dira.

Historiari erreparatuz gero ere, gorabeherak izan dituzte; garai batzuetan egin izan dira, beste batzuetan ez, galdu-gordean ibili dira. Hego Euskal Herrian, kasurako, XX. mendean galarazi egin ziren inauteriak, hori dela eta, herri gehienetan horren tradizioa, baita memoria ere, galduta egon da. Demokraziarekin batera gauza asko errekuperatu dira, gehienetan herrian herriko dantza- eta kultura-taldeen bitartez.

Ipar Euskal Herrian Bigarren Mundu Gerraren ondoren asko urritu ziren inauteri-erakustaldiak. Han ere 60-70eko hamarkadetan berreskuratu dira aurreko garaietako dantza, ohitura eta tradizio asko.

Beste eragile batzuk ere egon dira; adibidez, gazteak herri handietara eta hirietara aldentzea. Gazte nahikorik egon ez eta hainbat tradizio bertan behera geratu dira han-hor-hemen.

Aratuste, Karnabal edo beste batzuek Inauteriak esaten dietenen gainean esaera asko dago. Hemen batzuk:



Inauteri ondoan Garizuma.

Inauteak auzitan, bazkoak atean.

Inaute gizona, gizon nahasia.

Bazko guztiek hilzar, inaute guztiek hilberri, errege Salomonek (Absalonek) ez du gose, ez egarri.

JANARIAK

Gero etorriko den barau-sasoari kontrajarrita, inauterietan asko jaten da, eta ez kopuru aldetik bakarrik; gainera gozokiak, janari koipetsuak eta astunak izaten dira.

Puntu honetan, inauteri-egunak ez ezik, aurreko ospakizunak ere kontuan hartu behar dira. San Anton, Kandelario, San Blas, Santa Ageda, Eguen Zuri... janariak bedeinkatzeko eta eske-errondak egiteko egunak dira. Bedeinkatzen direnen helburua osasunerako onuragarri izan eta etorkizunean janari faltarik ez edukitzea da.



Tostadak

26

Aldi honetan, jatorduak amaitzeko gozoki bereziak prestatu ohi dira: tostadak, torrarak, torrijak, krepeak, kruxpetak... Kandelario egunean, kasurako, ohikoak dira tostadak. San Blas egunean gaur egun gailetak, gozokiak, ogia... bedekintzen dira, baina lehenago baita ura, gatza, ezitia eta abereentzako jatekoak eta soroetarako haziak ere. Santa Agedatan Arabako hainbat herritan erroso berezia prestatzen zuten kantariei emateko.

Inauteri egunetan, hau da, ostegunetik asteartera bitartean, lurralde guztietan ohikoak izan dira eske-errondak. Halakoetan etxeetan txorizoak, arrautzak, txerrikiak eta antzekoak ematen zizkieten errondariei, afari on bat elkarrekin egin zezaten. Baina etxeko jatorduetan ere baziren berezitasunak. Egun horietako menuan jaten ziren etxean hildako txerriaren hankak, belarriak eta muturra. Txerri-hankak edo txerri-patak, txerri-belarriak esaten zaie halakoei, atzetik datorren Garizumako bijiliari aurre egiteko edo.

Postrerako, tostada, torrada edo torrija esaten zaienak Kandelariotan hasita jaten dira, ogiz edo ahiz eginda. Nafarroan badituzte ensaimadak eta piper-opilak ere, eta Iparraldean krepeak eta kruxpetak.

10. INAUTERIEN ARABERAKO OSPAKIZUNAK

ORAKUNDE

Garai horretako jai batzuk inauterien arabera finkatzen dira. Hala, aurreko hiru ostegunak bereziki ospatu dituzte Nafarroan. *Izekunde/gizakunde/aitakunde* gizonen jaieguna zen; *emakunde/andrekunde/amakunde*, emakumeena; eta

orakunde elkarrekin ospatzen zen. Azken hori inauterietako ostegunean, *ostegun gizen* esaten zaion egunean izaten zen.

Julio Caro Barojak erromatarren Matronaliarekin lotzen du Emakunde edo Andrakunde jaiak. Izena harekin bat dator guztiz, eta haren iturria ematen du halako jaien jatorritzat.

Halako egunetan etxerik etxe genero eske ibiltzea ohikoa zen, eta ohitura hori artzainekin lotuta ere agertzen da.

BASARATOSTE

Bizkaian nortasun apartekodun ospakizuna da Basaratoste deritzana. Hogeigarren mendean aratusteak ia guztiz galduta egon direnean ere, Basaratoste herri, auzo eta etxe gehienetan egin izan dute. Aratuste-domekaren aurrekoan izaten da, eta egun horretan herriko edo auzokoak, gaztetxoak gehienetan, basora joaten dira hango zelai batean txorizoa erreta jatera. Txorizoa ez bada, urdaia edo antzeko jakiren bat hartzen da, bakoitzak etxetik eroanda. Zotza ere bakoitzak berea eramaten du, bertan jatekoa jarri eta basoan bertan egindako sutan erreta jateko.



Txixiburduentzi egiten

27

Izen horren aldaera diferenteak ematen zaizkio ospakizun honi ere, herri batetik bestera: basaratoste, basatoste, basaratuste, basaratiste, basabatiste, batiste... Hauek denak basa eta aratuste hitzetatik eratorriak. Beste erro bateko izendapenak ere badira: kanporamartxo, basomartxo; txitxiburduntzi txitxi (haragia –gaur ume-berbetan, baina antxina esangura neutroagaz–) eta burrunntzi (burdinazko zotza) hitzen konposizioa; sasikoipetsu eta basokoipetsu.

OSTEGUN GIZEN, EGUEN ZURI

Euskal Herriko ospakizunetan zabalera handia dauka *Ostegun/Ortzegun Gizen* edo *Eguen Zuri* esaten zaion jaiak. Erdaraz *Jueves Lardero* edo *Jueves Gordo* esaten zaio. Nafarroa eta Arabako herri askotan, egun horretan umeek dirua batzen zuten jaiegun horri dagozkion abestiak eta bertsoak kantatuz. Gero diru horrekin merienda ederra egiten zuten.



28

*Eskola-umeak Eguen Zuriko eske-errondan,
Abadiño, 2013*

Julio Caro Barojak bi lekukotasun hauek ematen ditu egun horretarako: bata, *oillokunde*, Erronkariko Bidangotzen (N), oilarren osteguna ospatzen dutela dio. Maisuak oilo bat makila-punta batean lotu eta mutikoei begiak estaltzen zizkien. Orduan, makilarekin hiru kolpe emanda oiloa hiltzen zuen mutikoak maisuarekin batera jaten zuen.

Bestea, Gordexolakoa da (B). Egun horretan umeak taldean, eta eskuetan banderinak zeramatatzatela, eskean joaten ziren etxetik etxe, otzara batean oilarra sartuta. Oilarra, giro horretan, biziaren adierazle dugu; heriotza uxatzekoa, eta harekin batera espirtu kalteginak, deabruak, sorginak eta izaki txar guztiak.

Bizkai alde batzuetan, Oizen inguruko herrietan, eskoletako neska-mutilak hurrengo datozen edo antzeko koplak abesten dituzte, Durangaldean oraindino bizirik dirautenak. Eguen Zuriko koplak bilduma dakargu hona.

*Eguen Zuriko eguna,
Jaungoikoak berak egina,
eskola-mutilak ibiltzeko
limosna on baten bila.*

*Hor goian-goian goldea,
haren gainean belea,
etxe honetako nagusi jauna
nekazari langilea.*

*Poltsan badituzte erreal bi,
bata bestearen irudi
etxe honetako etxeandreak
Ama Birjina dirudi.*

*San Kasiano obispua,
eskola maisu jakituna,*

*Jesuskristoren fedeagaitik
odola emon ebana.*

*Santu hau bitartez dala,
ez eizu izan okerrik,
orain bagoaz danok aurrera
agur danori egimik.*

*Emon behar bozu, emoizu,
bestela ezetz esaizu,
ate ondoko haizeak hartzen
amak ez gaitu bialdu.*

*Mari Mondrongo, Mondrongo,
hik ez don asko emongo,
hik emongo (do)nan limosneagaitik
ez jonagu asko edango.*

BERRIZKO ALDAERA. JUANITA BASTIDA, 2010

11. EZAUGARRI OROKORRAK

Inauterietako ohiturak kristautasunaren bitartez hartuak dira, baina kristautasun aurreko bizikera paganoaren beste askorekin nahastuta daude.

Aldi honetako ezaugarri berezkoena *lege-haustea* da, gizartearen ordena bertan behera itxi, edo goikoz behera jarri; gauzak trabesetara egiteko eskubidea dago. Egunotan mozorroa, arpegia estaltzea, barre-zantzoa, dantza eta kantua nagusi dira.

Inauterietan egiten diren jarduera eta ekintzek, indarkeriazko jokoen itxura dutela dio Caro Barojak. Ohikoak ez zituzten

mugimenduak egin, hitzetan zein ekintzetan neurri baterainoko indarra erabili, ohiz kanpo jokatu, gauzen ordena itzulitara jarri... hori da garai honen ezaugarri berezkoena. Jarraian datozen Hausterre eta Garizumak eskatzen dituzten derrigorrezko zorrotzasun, gogortasun, seriotasun eta tristeziaren kontrakoa, hain zuzen ere.

Jokorik ohikoena garai honetan oilarrarena da. Ostegun Gizenerako aipatu dugu, baina gainerako egunetan ere egiten da, herri bakoitzaren arabera. Euskal Herri osoan zabal dagoen ohitura da, aldaera eta guzti. Oilarra bizirik egoten izan da, azken urteetan animalien babesleen ekinaz halakoak debekatu diren arte. Gehienetan leku itxi batean sartuta (zuloa, kutxa...) baina baita leku irekian solte ere. Mutikoei begiak estalita dituztela harrapatu, ukitu, jo... egin behar dute. Eta harrapatzen duenak beretzat hartzen du sarizat.



29

*Inoiz ez dute eten Oilarraren jokoaren ohitura
Eguren Zuriz Ermuan. 2012*

Joko hori sarritan eskolarekin lotuta dago, eskola-umeek parte hartzen dutelako segurutik. Ermuan (B), esaterako, gerraostean inauteriak galarazita zeudela ere, ez zen inoiz eten Eguren Zuriko ospakizun hori, eskolako maisuei esker neurri batean. Hainbestearino non, herritar askok Eguren Zuri

ez baitute inauteriek in lotzen; izan ere, hori zen ospakizun bakarra, eta apartekotzat hartzen dute.

Antzar-jokoa dugu animaliekin garai honetan egiten den jokoetarikoa bat. Antzarak eskegita ipini (lehenago bizirik), eta zaldi gainean bata bestearen atzean doazen zaldunak lepotik heldu eta zeinek hari burua kendu. Joko hori bizirik dago Markinan (B), adibidez, baina lehen Saran (L) ere egiten zen.

Aldikada honetan beste joko hauek ere egiten ziren: jendeari irina, ura, arrautzak... bota; txakur eta katuen atzetik ibili eurok jotzen, edo buztanetik poteak-eta lotu; puxikak eskuetan direla jendea jo eta bata besteari jarraika ibili; zarata-hots handiak atera, lapiko zaharrak, petardoak edo dena delakoa erabiltza.



30

Puxikak erabiltzen dituzte inauterietako desfile askotan ikusleak izutzeko. Durango, 2013

Eguneroko bizimoduko jokabideak hankaz gora jartzea zertan gauzatzen zen? Ohikoena andrak gizon eta gizonak andra jantzita ibiltzea da. Gizarte-rolak ere aldatu egiten dira sarritan; hala, dantzan egitea gizonak eskatzen zuen garaian, aldi horretan dantzarako konbitea emakumeak egiten zion gizonari.

Urteko beste garai batzuetako moduan, gazteek etxeetatik gurdiak hartu eta zuhaitz batetik zintzilik jarri, edo erre kara bota eta halakoak egiten zituzten. Halako tresna edo tramankuluak bide erdian ipini eta bidea galaraztea ere ohiko gaiztakeria izan da. Baserrietan ontziak esnez beterik hartu eta eraman, etab.

Karnabaletan alaitasuna, zarata, iskanbila da nagusi. Elkartzeko eta elkarrizkontuak esateko era ere bada; barregarrikeriak kontatu, zurrumurruak zabaltu, gordinkeriak esan... urte osoan baino askatasun handiagoaz, gainera. Maskarak edo mozorroak erraztu egiten du horretarako bidea, baina halakorik gabe ere, giroa aproposa da. Etxe barruko kontuak agerian jartzen dira, herriko jauntxo edo agintariak barregarri jarri eta kritika soziala egiteko unea da. Gaur egun, munduko berri gehiago dakigu, eta halakoak izaten dira karrozetako gai eta mozorrotzeko aitzakia. Mozorroak anonimo bihurtzen gaitu eta horrek askatasuna ematen du normalean egingo ez liratekeen gauzak egiteko.

Inauterietan eske-errondak egiten dira, sarritan ezaugarri edo pertsonaiaren bat tartean dela. Taldeek desfileak egiten dituzte, eta etxerik etxe ibiltzen dira; herriko kaleetan bestela. Kantuak eta dantzak leku handia hartzen dute dibertitzeko modu edo eran. Kantu-dantzok egunotan erakusten den askatasunaren adierazgarri izaten dira, baina beste esangura batzuk ere badituzte batzuetan. Espiritu txarrak uxatzea da egotzi ohi zaien esanahietako bat. Dantza

eta arranekin egiten diren ibilaldi batzuetan lurra esnatu eta udaberrirako uzta ona eman dezan, sugeak, sorginak eta parte txarreko guztiak uxatzea izango litzateke helburua. Halako talde eratueta dantzariekin nahasian sartzen dira bestelako pertsonaiak, ilada apurtzen eta okerkeriak egiten. Dantzariak berdin jantzita doaz eta mugimendu erritmikoak egiten dituzte, beti musikaren laguntzaz. Horien ondoan ordena haustera sartzen diren pertsonaiak jokabide okerrekoak izaten dira.

Inauteria bera erre egiten da azkenengo egunean, dela irudizko pertsonaia baten bitartez, dela sua eginez, eta horrek ere zentzu bera ezkututzen du.

Zintzarriak, arranak, kaskabelak... inauterietako pertsonaia askoren jantzietan txertatuta daude: joaldunak (Ituren eta Zubieta), kaskarotak, maskaradetakoak, dantzariak...

Animaliek leku handia izaten dute halako erakustaldietan: hartza, otsoa, zaldia, azeria, arkumeak eta abar. Mozorroen bidez irudikatzen dira halakoak, baina bizirik ere erabili dira sarri, hain handiak ez direnak: oilarrak, antzarak, ardiak eta abar. Desfile askotan ageri da hartza, esaterako, akerra ere bai batzuetan, otsoa, azeria...



31

Zaldi gainean antzarari lepoa mozten, Markina, 2012

Hartz handi bat hainbat lekutan agertzen da. Askotan lotuta eramaten dute, baina ihes egiten ahaleginduko da, eta inguruko guztiak ikaratzen eta zirikatzen.

Zaldia ere presentzia handia dauka gure herrietako inauterietan. Hainbat desfiletan pertsonaiak zaldi gainean doaz, zaldun antzera eta dotore. Baina horrez gainera, zaldia pertsonaia moduan ere ugaria da. Ikusgarriena, dudarik gabe, Zuberoako maskaradetakoa da. Kaskaroten artean ere ageri da, eta dantzetan zaldiaren ibilera imitatzen dute askok. Honekin lotuta, ez da ahaztu behar *Zaldun-inaute* ere esaten zaiola inauteri-igandeari.

12. INAUTERIAK NAFARROAN

Inauteriak inon indarririk izatekotan Nafarroan du dudarik gabe. Herriz herri hainbat ezaugarri, pertsonaia, ohitura eta dantza gorde dituzte. Landa-herrietako inauteriak dira asko, eta ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka bete-betean erakusten dute. Ikus ditzagun garrantzitsuenak.

ITUREN-ZUBIETA

Ituren eta Zubieta elkarren ondoan dauden herriak dira. Han beste inon baino lehenago ospatzen dituzte inauteriak, urtarilaren azken astean. Herri bietan *joaldun* taldeak daude. Hauek puntilladun jantziak, ardi-larrua gerrian eta bizkarrean, kolorezko zapiak lepoan, ttunturroak kolorezko zintekin apainduta, eta zaldi-ile edo -buztanez egindako isipua eskuan daramatela ibiltzen dira. Gerrian lotuta dituzte joareak edo arranak, eta pausoaren arabera joarazten dituzte denek batera, soinu erritmiko ozena eraginez.



32

Ituren eta Zubietako joaldunek elkarri bisita egiten diote. 1993

Urtarrilaren azken asteko astelehenean Zubietako joaldunak Iturenera doaz, eta asteartean Iturengoak Zubietara. Herriko sarreran bat egin eta guztiek batera zeharkatzen dute herria plazaraino. Desfilean joaldunak binaka doaz ilaran, eta denek batera jotzen dituzte joareak. Aurrekoak adarra jotzen du lantzean behin eta oihuen bidez ezartzen du erritmoa nolabait.

Dantza eta soinu erritmiko horren bitartez, natura esnatzea omen da asmoa, udaberria laster etorri dadin eta landareak ermetzen hasi daitezzen. Horretarako, parte txarreko guztiak uxatu behar dira, eta errito horren bidez hori ere lortu nahi omen dute.

LANTZ

Lantzeko karnabala ospetsuenetakoa ez ezik ikusgarrienetakoa ere bada. *Miel Otxin* gaizkilea, karnabal hauetako protagonista, harrapatu eta erretzen dute inauteri-asteartean,



33

Miel Otxin txatxoaren artean, Lantz, 1987

eta hori da ekitaldi nagusia. Baina pertsonaia sorta ugaria dago tartean.

Miel Otxin bera panpin handi-handi bat da, aurreko igandean gazteek prestatzen dutena lastoz beterik. Taldeko batek eraman eta dantzan erabiltzen du denbora guztian. Harekin batera doazenak: *Zaldiko*, gazte bat zaldiz jantzita eta zaldiaren zarata eta mugimenduak egiten dituena. *Ziripot*, zaku-telaz jantzita doa; barrua galtzu, lasto eta iraz beteta. Eskuan makila darama mugitu ahal izateko, eta barregarria

da. *Txatxoak* dira talderik handiena. Aurpegia telaz estalita eta etxeko oihal zaharrek in egindako jantzi baragarriak erabiltzen dituzte. Eskuetan makilak, inarrak, sardeak dauzkatela ibiltzen dira. *Perratzaileak* ere badaude, eltzea, matxardak, mailua, perrak eta apareju guztiakin.

Pertsonaia guztiok astelehenean desfilea egiten dute. Zaldikok Ziripot zirikatzen du, baita ahal duen guztietan lurrera bota ere. Ziripotek keinu, oihi eta irrintzi larriak egiten ditu. Perratzaileek Zaldiko perratzeko itxura egiten dute, bene-benetakoa balitz bezala. Batzuek eta besteek ikusleak etengabe zirikatzen dituzte, oihi, irrintzi, salto, jauzi eta zarata artean. Asteartean ere ibilaldia egiten dute, eta arratsaldean Miel Otxin epaitu egiten dute. Epaiketa moduko bat egin ondoren, tiroz hiltzen dute. Une horretan herriko jende guztia gainera doakio, eta azkenean su ematen diote. Suaren inguruan denek herriko dantza egiten dute, Lantzeko zortzikoa.

ALTSASU

Altsasuko inauteri-pertsonaiak *momotxorroak* dira, itxura beldurgarrikoak, ikusleak zirikatzen eta ikaritzen ibiltzen direnak. Haiekin batera doaz *sorginak*, irrintzika, eta *maskaridak*, lastoz beterik. Taldeburu *akerra* doala, plazan amaitzen dute ibilaldia dantzaldiarekin. Alkandora zuria odolez zikinduta daramate, praka urdinak, abarka beltzak, buruan ardi-larruak eta animalia-buruak adar eta guzti, zapiak aurpegia estaltzeko, joareak gorputzari lotuta zarata egiteko, eta eskuetan sardeak jendea beldurtzeko. Eskean ibiltzen dira herrian zehar, eta gero dantzan, desfile jendetsu-zaratatsuan. Indarkeria, beldurra, zarata, sua... denetarik dauka jai honek. Amaitzeko, mozorroei sua eman eta denak dantzan aritzen dira.

Jai hau galduta egon zen, lapurretak, indarkeriako ekintzak eta antzekoak egiten zirelako. Baina 90eko hamarkadan berreskuratu zutenetik, atzera indarra hartzen joan da eta gaur egun erreferentziakoa da Nafarroan.

LESAKA

Lesakan *zakuzaharrak* hiru zakurekin janzten dira, bat soinerako eta beste biak zango banatan lastoz beterik. Aurpegia zapi batez estaltzen dute, lastozko kapela buruan eta puxika eskuan, jendea jotzeko. Zakuzaharrek ilaran jarrita egiten dute desfilea herriko bandaren musikarekin eta mairuekin batera. *Mairuak* emakumeak dira, kapela zabala, zinta koloretsuekin apainduta dutela. Lesakan taldeak baserrietatik eskean joaten dira mozorrotuta euren antzezpenak egiten.

BERA

Berako inauterietan *artzainak* eta *inudeak* dira protagonistak. Binan-binan ilaran jarrita dantza egiten dute. Neskak artzain



Inudeak eta artzainak, Bera, 1990eko hamarkada

34

eta mutilak inude jantzita doazela, inudeek dantzan zehar haurrak gorantz botatzen dituzte, berriz eskuetan hartzeko. Beste pertsonaia batzuk ere badoaz taldean: Momo erregea, karrozan eta errege-jantziekin; alkatea, epailea, apaiza eta soldadua.

ARIZKUN

Arizkunen *Hartza* da protagonista. Berarekin batera taldea osatzeko, haren zaintzaileak, atsoak, mamuak, auzokoak eta ezkontzeko den bikotea doaz. Hartzak ihes egin nahi du, eta lortzen duenean, guztien kontra erasoka hasten da. Horrez gainera, sagar-dantza egiten dute, udaberriaren omenaldi gisa edo.

BESTE BATZUK

Badira beste inauteri berezi batzuk. Unanun, kasurako *mamuxarroak* beste herrietakoen antzeko jantziak erabiltzen dituzte, baina berezitasun batekin: maskarak burdinazkoak dira. Makilekin jendea jotzen doaz etengabe. Taldean beste pertsonaia bat dago, mutua, mamuxarroi jendea norantz joan den esaten diena. Inork ez igartzeko andrez jantzita doa.

Goizuetan *zomorroak*, mendian lanean egon diren ikazkinak, herrira etorrira zahagia bizkarrean hartuta dabilta dantzarien artean, joare eta arranak gerrian lotuta. Ibilaldian zehar, zahagi-dantza egiten dute.

Arantzan *mozorro zuriak* eta *beltzak* ateratzen dira, egun batean baserriz baserri ibiltzen dira; beste egun batean zuriz jantzita dantzak egiten dituzte eta azkenekoan ateratzen dira beltzak, ikusleak ikaritzen saiatzen direnak.



Mamuxarroa, Unanu, 1989

35



Ikazkina eta zahagi-dantza, Goizueta, 1986

36

13. INAUTERIAK ARABAN

Arabako herri askotan egiten izan dira eske-errondak, batzuk ostegun gizen egunean, beste batzuk asteburuan edo asteartean ere. Inauteriak *mozo*-en jaia izan direla esan daiteke neurri batean. Haiek elkartzen ziren bai kantuan eta eskean ibiltzeko, bai mozorropean ezkutatuta gaiztakeriak egiteko, panpinak erabiltzeko... Gehienetan bazkaria edo afaria ere egiten zuten elkarrekin. Gaur egun, jakina, horretan berdinduta daude neskak eta mutilak, eta adinari dagokionez ere, ezkongabeak zein helduagoak elkarrekin ibiltzen dira jai-giroan parte hartzen.

ZALDUONDO

Arabian gaur egun indarririk handiena daukatenak eta ikusgarrienak Zalduondoko inauteriak dira, zaharrenak izateaz gainera. *Markitos* deritzan pertsonaia epaitu eta erretzea du muina. Ospakizun hau galduta egon da luzaroan, baina hirurogeita hamarreko hamarkadan herriko ikertzaile batzuei esker berriz eskuratu zutenetik, indarra hartzen joan da eta gero eta ezagunagoa da.

Markitos festetan kaleetan zehar ibili ondoren, herriko plazan erre egiten dute. Beltzez jantzitako panpina gorbata duna da, eta urteko gaitzak irudikatzen ditu. Horregatik erretzen dute: gaitzak uxatzeko.

Berarekin batera beste pertsonaia batzuk ibiltzen dira: *pregoilaria*, erre aurretik sermoia egiten duena; *porreroak*, Lantzeko Ziripoten antzera, etxeko trapu zaharrekin jantzita; *maskarak*, zakuekin jantzita, lurrera erortzeko hartzak bultzaka erabiltzen dituenak; *errauts-banatzaileak* aurreko



Markitos, Zalduondo, 1980

urtean erretako panpinaren errautsak zabaldu egiten ditu; *atso-agureak*, biak pertsona batek irudikatuta, Markitosen gurasoak direnez, beste guztiek iseka egiten dieten bitartean, negar egiten dute haren heriotzagatik; artzaina eta ardiak; *hartza*, eta *kale-garbitzailea*.

Markitos traje dotoreaz jantzita, barrua lastoz beteta, txapela buruan eta arrautza-azalez egindako bularrekota dituela, goiz erdian hasita herrian zehar ibiliko da. Gero sei metroko makilaren gainean lotuta jarriko dute Lazarraga jauregiaren aurrean.

Arratsaldean konpartsa batek handik jaitsi eta herrian ibiltzen du asto baten gainean. Herrian aurreko urtean gertatu diren zoritxar guztien errudun bera dela eta, epaitu egiten dute. Herri osoak parte hartzen du epaketan, irainak egiten dizkiote, eta azkenean zigortzat sutan errea izatea ezartzen diote. Epailleak irakurtzen du epaia. Sermoilariaren hitzaldia urtetik urtera aldatzen da, urtean zehar herrian gertatu direnak gogoratzen dituelako: heriotzak, auzoen arteko gorabeherak, patataren prezioa jaitea... Edozerk balio du pertsonaia errudun jo eta sutara bidaltzeko.

Lehenago tiroa jota hiltzen zuten. Gaur egun gasolinaz su ematen diote, porreroek haren hondarren inguruan dantza egiten duten bitartean.

LAUDIO

Hiriko inauteria izan arren, baditu lehenagoko herriko zantzu batzuk. Adibidez, Leziagako Sorgina pertsonaia. Pertsonaia horrek Leziaga kobazuloan bizi zen emakumearen istorioa gogorarazten digu, urrezko orraziekin ilea orraztu eta bere lilura-kantuekin Laudioko artzainak erakartzen zituena.

Gazte taldeek inauteriaren hasieran sorginaren panpina ibiltzen dute herrian zehar, eta amaieran sutan erreta hiltzeko epaia ezartzen diote.



38

Katxiak Toribiori abesten, Santikurutze Kanpezu, 1992

BESTE BATZUK

Amurrion, *Kakarro* izeneko pertsonaia nagusia dela, herriko gazteak jantzi ilunak ipinita eta burua zaku beltzez estalita

ibiltzen dira, eskuetan puxikak dituztela. Herriko jendea, batez ere umeak, beldurtzea da haien egitekoa.

Bernedo eta Oion ditugu *Katxi* pertsonaiaren lekukotasunetako bi. Pertsonaia hori herriko jaietan dantzarien gidari ibiltzen da. Oionen San Anastasio eta San Vicente egunez egiten denez, gure zikloan sartzen da, inauteriekin guztiz lotuta ez badago ere.

14. INAUTERIAK BIZKAIAN

Bizkaiko herri gehienetan galduta egon da aratusteen memoria. Erabiltzen dira mozorroi deitzeko izenak, baina ohitura eta tradizioen aldetik, herri jakinetan baino ez du iraun trasmisio zuzenak. Beste askotan, dokumentaziotik edo aspaldiko agirietatik tiraka, errekuperatu egin dira lehenagoko ohiturak, ustez orduan ziren erara.

Mozorroa izendatzeko, *mozorro* hitza bera ez da erabili izan. Horren lekuan batez ere *marro* erabiltzen da –*marrao* eta *marrau* aldaerak ere bai–. Beste hitz-erroren batekin lotuta ere ageri da batzuetan: *kokomarro*, *karamarro*, *kukumarro*. Esangura beretsua du *koko* berbak ere, eta haren konposatuek: *koko jantzi*, mozorrotu adierazoteko, eta *koko-eguna* aratuste-eguna. Beste erro bateko hitzak ere erabiltzen dira; adibidez, *errabi* eta *errabi jantzi*, edo haren aldaera *erraba*; edo *muxaranga*. Aurpegia ezkutatzekoari *karatulea* edo *maskaritea* esaten zaio leku batzuetan, baina marro-soineko osoa izendatzeko ere erabiltzen da.

Bizkaian tradizioirik gehien izan dutenak herri jakinak izan dira. Banan-banan ikusiko ditugu.



MUNDAKA

Bizkaian ezagunenetakoak dira Mundakako *atorrak* edo *marroak*. Atorra zuriak jantzita ateratzen dira gizonezko taldeak. Lehenago, inork ez ezagutzeko, buruko-azalak



erabiltzen zituzten burutik behera sartuta, baina puntilla bitarteetatik barrukoak kanpokoak ikusi ahal izateko moduan. Orain aurpegia agerian daramate, gerraosteko debekuaren ondorioz ezarritako ohiturari jarraituz, bibote handi dotoreak margoztuta. Taldea kantuan ibiltzen da herrian zehar, soinu-kitarrekin lagunduta. Kantu bereziak egiten dituzte egunerako.

Aurpegiak estalita, gaiztakeriak egiteko aitzakia ere bazeukaten lehenago atorrok. Neskei gonak altxatu, etxeren batean sartu tostadak hartzera eta halakoak.

Gizonezkoen jaia zen horretan, azken hamarkadetan neskek laminek taldea sortu eta hala ateratzen dira. Honezkero errotuta dago ohitura hori ere.

MARKINA

Markinako aratusteetan ezaugarri berezi bat baino gehiago daude: hartza, antzar-jokoa eta zahagi-dantza.



Atorrek eta lamiak, Mundaka, 2011

Markinan zahagi-dantza, hartza eta antzarak dira ohikoak. Markina, 2012

Hartza ardi-larruz jantzitako mutil gazte bat da. Katez lotuta daramate, umeengana eta jendearengana hurbildu eta ikarutzen ibiltzen delako. Dantzariekin batera dabil. Dantzariok, kalez kale doazen bitartean, noizean behin geratu eta zahagi-dantza egiten dute.

Antzar-jokoa kalean egiten da, lehenago Guenkalean, estua berau, eta gaur egun parkean. Antzarak eskegita jartzen dira, lehenago bizirik, gaur egun hilda; zaldi gainean doan zaldunak lepotik oratu eta tiraka-tiraka apurtu egin behar dio. Entzute handia hartzen zuten aldi batean jokoan onenak zirenek.

ERMUA

Eguen Zuriz oilar-jokoa egitea da Ermuko bereizgarria. Hainbestearino non gerraostean inauteriak galarazi zituztenean ere, ohitura hori ez zen galdu. Zeren, bertan parte hartzen zutenentzat, Eguen Zuri jai solte bat baitzen, oso esanguratsua eta gustagarria, eta inauterien giroarekin zerikusirik ez zeukana. Eskola-maisuen bitartez bideratzen zen jokoaren antolaketa orduan. Gaur egun Udala arduratzen da, ikastetxeekin bat eginda.

Oilar bat jartzen dute kutxa baten barruan, lehenago bizirik, gaur egun irudizkoa. Jokalariak, begiak estalita, makila bat eskuetan hartuta, ibilbidea egin behar izaten dute oilarra dagoen kutxaraino eta makilarekin jo. Ibilbidean txistulariek laguntzen diote bidetik ez ateratzeko, baita alboetan dagoen jendeak ere.

Lehenago, oilarra bizirik egoten zenean, oilarra bera izaten zen saria irabazlearentzat, eta gerraosteko gose-urteetan estimadua zen hori.



Hartza, Ermua, 2013

41

Azken hamarkadetan, Eguen Zuri hurrengo egunean Hartza kalerik kale ibiltzea zabaldu da. Herriko batek koplak batzuk egin zituen, aspaldian hartz batek ardiak hiltzen zituela eta, herrikoak batu eta harrapatu zuteneko pasadizua gogoratuz. Gaur egun kalejiran ibiltzen dira hartza katez lotuta eta bertso horiek abestuz.

BESTE BATZUK

Lekeition Estudiantina irteten da kalerik kale kantuekin giroa alaitzen. Estudiantina 1862an sortu zen. Erreperatorio zabala jo eta abesten du: habanerak, jotak, kalejirak... batzuk taldearentzat sortuak.

Durango azken 25 urtetik gora *surrandiak* berreskuratu dituzte. Sudur handidun maskarak jartzen dituzte, burua zapiz estalita, koadrodun alkandora eta txilinak zintzilika.



42

Surrandiak, Durango, 2013

Gernikan ere *marroak* garai horretan berreskuratutako ohitura da. Marroen maskarak dotoreak dira. Bai maskarek, bai jantziek Veneziakoak gogoratzen dituzte. Horrez gainera, oilar-jokoa eta soka-dantza egiten dute.



43

Marroen aureskua, Gernika, 2013

Trapagaranen aspaldian galdutako *Carrascolindas* egiten dituzte orain. Jantzi zarpilduak jantzita, koplak batzuk abesten dituzte auzorik auzo, oilarra aldean daramatela. Dantza, irrintzi, salto... giroa da nagusi.

Bilbon, udan Aste Nagusian bezala, inauterietan programa berezia eta bete prestatzen dute. Garai beretsuan hasi ziren ospatzen bata eta besteak. Azken urteetan ezaugarri berezi moduan, *Farolin* eta *Zarambolas* izendatzen dituzte hiriko pertsona ezagunen artean, eta epaiketa egiten diete. Jaiak amaitzeko sardina erretzen dute.

15. INAUTERIAK GIPUZKOAN

Hego Euskal Herriko inauteririk ospetsuenetakoak Gipuzkoan egiten dira, Tolosan. Entzute handi-handia izan dute beti. Gainera, beste inon egiten ez zirenean eta galarazita zeuden bitartean ere gorde izan dituzte. Tradizio aldetik beste leku batzuen aldean ez daukate pertsonaia eta dantza edo ospakizun berezirik, baina aparteko erakarmena dute jende guztiarentzat.

DONOSTIA

Donostian inauterien aurrerapen moduan beste jai bi ospatzen dira.

Lehenengoa, *Hungariako Kaldereroen konpartsa*. Lehenengoz 1884ko Kandelario egunean ospatu omen zen, inauterien barruan. Gero luzaroan gorabeherak izan zituen, hasi eta iraun ez. Berriz piztu zuten jaiak



44

Kaldereroak, Gros, Donostia, 1991

1972an, eta harrezkero urtero ospatzen da gero eta parte-hartzaile gehiago dituela.

Jai honetan galdaragileak hirira sartzea antzetzen dute, inauteriak datozela iragartzera. Hiri osoan mailuak eta sartaginak joz ibiltzen dira, Raimundo Sarriegiren abestien erritmoan.

Hamazortzi tribuk osatzen dute Kaldereroen konpartsa tradizionala gaur egun. Tribuak herri elkarateak dira, eta konpartsan zenbait pertsonaia irudikatzen dituzte, adibidez: Erregina, Damak, Zuzendaria eta laguntzaileak, hartza, hartz txikia eta bere hezitzailea.

Musika, kantuak eta dantzak osatzen dute konpartsaren desfilea, argi koloretsuz jantzitako gurdiak daramatzatela.

Bigarrena, handik astebetera *Inudeak eta artzainak* konpartsaren txanda da. Hau ere aspaldikoa da baina gorabeherak izan ditu. Gaur ezagutzen dugun moduan 1973an hasi zen, Kandelario egunetik hurbilen dagoen igandean. Ordurik hona Kresala taldeak dauka antolatzeko ardura.

Inudeak kalejiran doazen bitartean, une batean haurrak airean botatzen dituzte, eta artzainek jauzi eta oihu berezi bat egiten dute umeak hartzen dituzten bitartean. Jende guztia une horren zain egoten da.

Artzainak menditik jaistean inudeekin egiten zuten jolasa gogorarazten du. Inudeak, bestalde, medikuarengana eramaten dituzte haurrak eta baita idazkariarengana ere. Taldean dantzariak, musikariak eta garaiko pertsonaiak daude.

Behin inauterietara helduta, Momo jainkoa da pertsonaia nagusietakoa. Hari harrera egin eta lehenengo egunean hiriko giltzak ematen dizkiote.

TOLOSA

Tolosako inauteriak dira Euskal Herrian ezagunenak eta entzutetsuenak. Herri osoak modu berezian bizi du jai hau eta denak ateratzen dira kalera nola edo hala jantzita.



45

Tolosa, 1983

Beste berezitasun bat ere izan dute Tolosan; izan ere, XX. mendean diktadura garaian galerazita egon zirenean, herri gehienetan galdu ziren bitartean, Tolosan bizirik iraun zuten eta ospatzen jarraitu. Udaberriko Jaiak zirelakoan, izena aldatuta inauteriak egin izan dituzte.

Ospatzeko orduan, herritarren parte hartzea nabarmendu behar da. Hortik aparte, zezenak ezagunak dira eta baita karrozen desfilea ere, lagun taldeek irudimen ikaragarria erakusten dutela euron bidez.

BESTE BATZUK

Eibarren Eguen zuriz hasi eta asteartera bitartean ospatzen dira inauteriak, edo aratustekak, han esaten duten moduan. Neguko eske-erronden barruan, *koko-eskea* egiten dute etxerik etxe. Eskean ibiltzen direnak koko-dantzariak dira, eta etxeetara doazenean makila-dantza egiten dute bertan.



46

Eibar, 2010

Amezketeta eta Abaltzisketan halakoei *Txantxoak* esaten zaie, eta haiek ere makila-dantza egiten dute etheen aurrean.

Aretxabaletan txino-dantza eta txinoaren hileta egiten dituzte; Orian sorgin-dantza, Bergaran eta Antzuolan tximinoa, hartza eta zaindariairekin.

Hernanin eta Adunan azeri-dantza edo maskuri-dantzaren inguruan sortzen da bertako berezitasuna.

16. INAUTERIAK LAPURDIN

Lapurdin *kaskarotak* eta *Zanpantzar* nabarmendu behar dira inauteriekin lotuta. Kaskarotak dantzariak dira, eta etxetz etxe ibiltzen dira, goizean hasita, jan-edan eske, etxeetan barruraino sartuta.

Desfile horretan pertsonaia askok hartzen dute parte.

Kaskarotak, mutil dantzariak, garai batean mutil gazteak ziren, ezkongabeak. Gaur egun neskak ere ibiltzen dira, eta gehienetan lorak erabiltzen dituzte buruan apaingarrizat. Alkandora eta praka zuriak daramatzate, gerriko zabal gorria eta kapela loraz eta zintaz apainduta.

Enseinaria edo *banderaria* taldearen buru doa, banderarekin.

Kotilun Gorri edo *Marikak* taldea ordenan ibiltzeko arduradunak dira. Maskara gorritz estaltzen dute aurpegia, praka zuriak eta gainetik gona moduko bat, gorria daramatzate, eta eskuan behi-buztana. Normalean binaka ibiltzen dira.

Besta gorriak praka zuriak eta jaka gorriaz janzten dira eta aurpegia maskara gorriaz estalita daramate. Eskean ibiltzen dira, horretarako kutxatxoa daramatela. Zurezko



47

Afitxa, 2010

ezpata bat ere izaten dute, publikoa eta ikusleak zirikatzen. Gehienetan binaka edo launaka joaten dira.

Ponpierrak ere binaka dabilta beti. Maskara gorria eta, gainean, kolore askotako apaingarri luzea. Praka laburrak eta jaka marra zabaldua, koloretan dutela, eskean ibiltzeaz gainera, dantza ere egiten dute. Arlekin itxura dute nolabait.

Makilariak makila bat astintzen du ikusgarriri. Ez da herri guztietan izaten.

Jaun eta *Anderea* gizon-emakume gazteak dira, beti elkarri besotik helduta doaz, dotore jantzita, ezkontzeko moduan.



48

Sara, 2013

Maska, *Piltzar* edo *Zirtzilak* pertsonaia barregarriak dira. Etxeko jantzi zaharrekin edozein eratan jantzita ateratzen dira, eta desfilean zantzoka, oihuka, jauzika ibiltzen dira.

Hartza ia galduta dago Lapurdiko inauterietan, baina lehenagoko testigantzak badira, zaintzaile eta guzti. Batzuetan beste pertsonaiengandik aparte, bera bakarrean ibiltzen zen.

Zanpantzar lastoz betetako panpin handi bat da. Herrian zehar ibiltzen da, baina gero epaiketa egin, zigortu eta sutan erreta hiltzen dute.

Talde osoa herriko etxeetatik dantzan eta eskean ibili ondoren, herriko plazan batzen da dantza egiteko. Eguna amaitzeko, *Zanpantzarren* epaiketa eta heriotza antzetzen dute. Izan ere, pertsonaia horri leporatzen zaizkio kalte eta zoritxar guztiak, eta horregatik erreta hiltzera zigortzen dute.



Thierry Truffaut ikertzaileak herriz herri aztertu ditu neguko tradizioak, tartean direla inauteriak. Den-denak inbentario zehatz batean jaso ditu. Baten bat nabarmentzekotan, ordea, hiru hauek bereizten ditu: Uztaritzekoa, oraindik ere etxez etxeko erronda egiten dutelako; Itsasukoa, edertasunagatik; eta, Beskoitzekoa, inaute-igandean herriko plazan inauteri-dantza guztiak egiten dituztelako.

17. INAUTERIAK NAFARROA BEHEREAN

Nafarroa Behereko inauterietan *Kabalkadak* eta *bolantak* dira berezienak. Halakoak egiten dira hainbat herritan, joan den mendearen zati handi batean herri askotan galduta egon badira ere. Luzaideko bolantak ere tradizio honetan sartuko lirateke, nahiz eta herria mugaren hegoaldean egon. Eta ez hori bakarrik, neurri batean han eutsi diote Nafarroa Behereko tradizioari, eta garai batean galduta izan duten herrietara berriz zabaltzeko gunea izan da.

Bolantei lehenago *Axeri besta* esaten omen zitzairen. Eta Kabalkadei dagokionez, urteko beste sasoi batzuetan ere egiten dira, inauterietan berezkoak badira ere, ez horkoak bakarrik. Pertsonaien artean maskaradunak ez dira hainbeste, eta desfilearen hierarkiari erreparatuta, ordena militarrekin antz handiagoa dauka inauterietako pertsonaien askatasuna, desordena, zarata eta nahaspilarekin baino.

Pertsonaiak izendatuko ditugu:

Zaldikoak edo *zaldunak*: taldearen buru zaldunak datoz, zaldi gainean dotore. Etxetatik dabiltzanean han ematen dizkieten *puskak* batzen dituzte.

Kabaliar eta *Kabaliarsa*: hauek ere zaldi gainean, kapitaina eta honen emaztearena egiten dute.



49

Donibane Garazi, 2011

Makilaria: makila dantzatzeko du trebezia handiz, akrobaziak eginez ia-ia.

Zapurrak: armadako zulatzaileak dira, aizkora lepoan dutela doaz. Normalean ez dute dantzarik egiten, taldean doaz desfileko kide gisa. Kapela biribil altua erabiltzen dute, izpiluz betea.

Zigantiak: emakume itxurako erraldoiak.

Bandelariak: bandera daramatenak dira.

Gorriak: antolakuntzaz arduratzen dira.

18. INAUTERIAK ZUBEROAN

Basa-andereak: bi edo lau mutil izaten dira, neskaz jantzita, aurpegia beloarekin estalita.

Bolantak: hauek dira ikuskizunaren muina, izena ere ematen diote: bolant-eguna, bolant-dantzak, bolantak. Binaka eta ilaran ibiltzen dira. Zuriz jantzita doaz, praketan zinta eta zintzarriak dituztela. Bizkarrean kolorezko zinta apaingarriak dituzte. Eskularru zuriak eta makila txikia, zintaz estalia hori ere.

Neskatoak: gaur egun normala da neskek parte hartzea bolantetan, apurka-apurka presentzia handitzen joan dira, baina lehenago halakorik ez zegoen.

Zitziztak: jantzi zarpaildunak, aurrean doazenak modu barregarrian imitatzen dituztenak.

Pertsonaia guztiek jantzi koloretsuak erabiltzen dituzte, apaingarri eta zinta askorekin hornituta. Jantziak zuriak izaten dira, baina prakak, abarketa eta alkandoran brodatuak dituztela. Atzealdean koloreetako zintak dituzte dingilizka, kapela loratsuak edo zinta askorekin.

Desfilean zehar martxak dantzatzen dituzte ilara bitan, denek batera jauziak egiten dituzte, eta kontradantzak bikoteka.

Luzaiden eguneko antzezpena Axe ta tupina parodiarekin amaitzen da. Bi gaztek emakume-jantzi zarpailak jartzen dituzte, elorri inguratuta bai jantziak, bai kapela. Beste guztiak une batean haien gainera doaz dena kentzera, eta buztana hartzen duena da eguneko garailea eta heroia.



Zuberoan modu berezian ospatzen, edo hobeto esanda, antzezten dituzte inauteriak, maskaraden bitartez. Gure artean bereziena da eta guztiz harrigarri da orain arte iraun izana. Asko aldatu omen da denboraren joanean, beti aldian aldiko bizitzara egokituta.

Euron jatorria jakiterik ez badago ere, XVI. mendean sartu omen ziren Zuberoan, Europako ohiturekin bat eginda.

Urtean herri batek hartzen du maskarada prestatzeko ardura. Maskaradaren inguruan herri horretako gazteak elkartu egiten dira, harremanak estutuz, eta baita gainerako herrietakoekin ere; izan ere, astez aste herririk herri ibiltari jardungo dute. Urte hasieratik udaberrira bitartean egiten dira, lehenago inauteriak amaitzean bukatzen baziren ere. Horietatik, lehenengo eta azkeneko antzezpenak herrian bertan egiten dituzte.

Gaur egun 20-25 laguneko taldeak osatzen dira baina, lehenago 80 ere izaten omen ziren. Antzezleen artean ere izan dira aldaketak. Lehenago denak gizonetzkoak ziren, baita andrazkoen paperak jokatzeko ziztuztenak ere, eta gainera gazteak eta ezkongabeak. Gaur egun ere gazteak dira, baina neska-mutilak; eta ezkonduak zein ezkongabeak ibiltzen dira.

Pertsonaiak ondo identifikatuta eta zehaztuta daude, talde bitan banatuta: gorriak eta beltzak. Gorriak dotore jantzita doaz, ordenan mugitzen dira, dantzari finak dira. Beltzak, ordea, zikinak, baldarrak, zaratatsuak dira eta ordenarik gabe mugitzen dira, indarka, elkar bultzatzen eta elkarren gainean jauziak egiten. Talde

ezberdinak dira, kontrajarriak, baina ez dute elkarren kontrako burrukarik egiten, elkar osatu egiten dute.

PERTSONAIAK

Gorrien maskarada: izena jantzetatik datorkio, gorria delako kolore nagusia. Gorrien artean dantzaririk onenak, aitzindariak, nabarmentzen dira. Aurrean doaz, eta dantzari dagokionez protagonistak dira. Hauek dira:

Txerreroa: muturrean zaldi buztana duen makila batekin garbitzen doa, dantza egin bitartean, gerrian daramatzen brontzezko sei zintzarriei eraginez.

Gatero, Gatia edo Gathuzain: kasaka urdina jantzita doa eta pantografo deritzan tresna eskuetan duela, publikoa zirikatzen du.

Kantiniarsa: XIX. mendean sartutako pertsonaia da, lehenagoko buhamesaren lekua hartuz.

Zamalzain: hau da pertsonaia nagusia, dantzaririk onena edo trebeena, baina baita beronen esanahia interpretatzen zailena ere. Zaldi gainean doan gizona irudikatzen du, zaldi-buru eta jantzi moduko bat darama gorputzean, eta buruan lore, zinta eta izpiluz beteriko koroa.

Entseinari edo banderaria: Zuberoako bandera darama eta etengabe astintzen du, beltzez jantzita doa eta aitzindarien artean azkena da.

Maskarada gorrian, aitzindariekin batera, beste pertsonaia hauek doaz:

Marexalak: Zamalzainen errementariak dira. Patroiak, kurrika, mailua eta larruzko amantala

erabiltzen ditu. Kasaka gorria eta praka beltzak ditu. Dantzari onak izaten dira, normalean binaka doaz.

Jauna eta anderea: Jauna maskaradako nagusia da, berak dauka ardura maskarada ondo joan dadin. Ondo jantzita doaz, gizonak praka beltzak, makila eta sablea ditu, eta andereak soineko zuria.

Khestuak edo Kherestuak: patroia eta mutila, bearnesez egiten dute, eta Zamalzainen atzean joaten dira.

Laboraria eta laborarisa: nekazariak diren aldetik, dagokien moduan jantzita doaz, normalean jantzi ilunekin. Gizonak akuilua eramanez ohi du, eta etxekoandreak saskia.

Kukulleroak: kasaka gorria eta praka zuria erabiltzen dituzte. Lehenago Zamalzainen kortekoak ziren, baina gaur egun indarra galdu dute antzezenaren barruan. Dantzari gazteenak, ugariak izaten dira, eta binaka lerroan ibiltzen dira.

Caro Barojak beste pertsonaia batzuk ere aipatzen ditu, gaur egun galduta daudenak: *axuriak*, bi ume zuriz jantziak; *artzaina*, sokarekin lotuta zeramatzana; *hartza*, ahuntz edo beste animalia batzuen larruz jantzitako gaztea; *lore-saltzaileak*, bi mutil gazte neskaz jantzita.

Beltzen maskarada: beltza da nagusi talde honetako pertsonaien artean. Talde honetako pertsonaiak hauek dira:

Kerestuak: Zamalzain irendu edo zikiratzen dutenak dira. Talde bien arteko mugan daude; alde batetik, ordenan ibili eta zintzo jokatu arren, maskaradan zehar daukaten zereginari erreparatuta beltzen



50

Maskarada, Larraine, 2010

taldean sartuko lirateke. Bi izaten dira, nagusia eta mutila. Panazko trajea janzten dute, makila bat bizkarrean, eta euren artean bearnesez hitz egiten dute.

Xorrotxak: zorrotzaileak, hauek ere nagusia eta mutila. Erremintak zorrozteari ekiten diote, batez ere jaunaren ezpata. Kantuan ibiltzen dira, normalean taldeko aktoreen edo bisitan dauden herriaren

gainean. Kerestuen moduko jantziak dituzte, baina buruan, katagorri disekatua duen kapela daramate.

Buhameak: oihal koloretsu eta loretsuekin egindako jantziak erabiltzen dituzte, eta baita egurrezko ezpata ere. Buhame-jauna, taldeko burua da nagusia. Lehenago emakumeak ere irudikatzen zituzten, zikinkeriak egin eta hizkera gordina erabiltzen zutenak.

Kauterak: pertsonaiarik zikinenak dira, beroki beltz-luzeak, zahar eta zarpailak, txapel beltzak lumekin, zuhaitz-sustrai eta -adarrak eramaten dituzte.

Hauen artean bi dira nabarmendu beharrekoak: *Kabana*, taldeko nagusia; eta *Pitxu*, okerrera eta barregarriena.

Medikuak: pertsonaia hauek, luzaroan galduta egon ondoren berriz ekarri dituzte, Pitxu berpizteko zeregina betetzeko.

Azken hirurak jendea zirikatu eta zarata egiten dute etengabe, basakeriak eta zorakeriak egiten dihardute.

Gorrien maskaradan bezala, beltzenez ere beste pertsonaia batzuk egon izan dira, historian zehar galtzen joan direnak: txerrero, zamalzain, botikaria, tximinia-garbitzaileak eta beste batzuk.

EGITURA

Maskaradan hiru zati bereizten dira gaur egun, lehenagokoetatik laburtuta edo trinkotuta daudenak:

Barrikada: Hérelle-ri jarraituz, Caro Barojak gerra-ekintzat jotzen du parte hau. Dantzarien segizioa herrira sartzean, eta herriaren barruan

etxerik etxe doala, barrikadak aurkitzen ditu; hau da, traba egiten dioten mugak. Muga hori zeharkatzeko, eraso modukoak antzezten dituzte, dantzen bitartez. Gorriak harmonian mugitzen dira, beltzak saltoka eta oihuka.

Behin herrira helduta, erakustaldia prestatzeko, segizioa herrian zehar ibiltzen da. Arribadaren soinuari jarraituz, etxe nagusiak bisitatzen dituzte, eta han jateko eta edatekoa ematen dizkiete. Horrela, herriko nagusiak omentzen dituzte. Dantza batzuk egiten dituzte, banaka lehenengo eta taldeka gero. Azkenean beltzek, oihuka, barrikada hautsi eta multzoan eroriko dira elkarren gainean. Barrikada jarri dutenek jan-edanak eskainiko dizkiete irabazleei. Haiekin batera jarraituko dute aurrerantzean hurrengo barrikadak igarotzeko. Behin denak igarota, kukulleroen dantza dator, eta talde osoarena gero, herriko plazan.

Branlia: Zamalzain erdian dela, biribil ireki bat egiten dute, mutur bietan Jauna eta Laboraria daudela. Banderariak gidatzen du taldea, eta aitzindariak erdian beste biribil batean. Dantzarako herriko jendea ere sartzen dute. Hiru dantza dira berez: kontrapas, Braletik Jauzia eta Karakoltzia.

Ofizioak: zati honetan pertsonaiek beren lanbidea antzezten dute, gorrien dantzak eta beltzen antzezpeneak dira atal honen osagaiak. Dantzarekin batera mimikak hartzen du leku handia. Lanbideei dagokienez, ez dira beti denak ez berdin erakusten, baina batzuk orokorrak dira.

Marexalek Zamalzain ferratu behar dute; hasieran txarto egiten dute, baina azkenerako asmatuko dute.

Kerestuek Zamalzain zaldia zikiratzea antzezten dute.

Txerrero, Gathuzain, Kantiniersa, Zamalzain eta Entseinariak Gabota-dantza egiten dute, biribilean egiten den dantza korala.

Xorrotxen zeregina jaunaren ezpata zorroztea da, kantuan ari diren bitartean.

Buhameek, oihuka sarrera egin ondoren, zurezko ezpatekin dantza egiten dute.

Aitzindariak nagusien aurrean Godalet-dantza egiten dute, dantzarik ikusgarriena eta ospetsuena. Dantzari bakoitzak godaletaren gainean salto egin behar du barruko ardoa bota barik.

Kauteren papera gutxienez lau galdaragilek antzezten dute, tartean Kabana patroia eta Pitxu mutila direla. Jaunaren pertza zaharra konpontzea dute euren egitekoa. Kabanak hitzaldi luzea egingo du. Buhame eta kauteren arteko tirabiretan Pitxu hil egiten da, baina Bedeziak berpiztu egingo du.


Batzuetan Jaun-Andereak eta Laboraria-Laborarisak beren dantza izaten dute maskaradaren barruan.

Inauteria bukatzeko, bai pertsonaia guztiek, bai ikusleek, Muñeñak dantzatzen dituzte.



BIBLIOGRAFIA

- AGUIRRE, Juan Bautista: *Confesioco eta Comunioco sacramentuen gañean eracusaldia*. Tolosa: F. Lama, 1803.
- CARO BAROJA, Julio. *El carnaval (análisis histórico-cultural)*. Madrid: Taurus, 1965.
- DUEÑAS, Emilio Xabier, ed. lit.. *Olentzeroren tradizioa Lesaka eta Euskal Herriko Eguberrietan / La tradición de Olentzero en la Navidad de Lesaka y Euskal Herria*. Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 2006.
- EGURCEGUI ARRÓNIZ, Jesús. Arluzea. Apuntes etnográficos de un pueblo alavés. *Ohitura Estudios de etnografía alavesa*, nº 9. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 2002.
- ETNIKER EUSKALERRIA. Euskal Herriko Atlas Etnografikoa. *Ritos del nacimiento al matrimonio en Vasconia*. Bilbao: Etniker Euskalerrria; Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza; Pamplona: Gobierno de Navarra, 1998.
- . Euskal Herriko Atlas Etnografikoa. *La alimentación doméstica en Vasconia*. Bilbao: Etniker Euskalerrria, 1992.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan. *Iñauteria. El carnaval vasco*. Donostia-San Sebastián: Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea, 1992.
- JIMENO JURIO, José M^a. *Calendario festivo. II. Invierno*. Obras completas 52. Pamiela, Udalbide, Euskara Kultur Elkargoa, 2009.
- LABAYRU IKASTEGIA, IKASTOLEN ELKARTEA. *Oles ta oles*. Bilbo: Labayru Ikastegia-Ikastolen Elkartea-Elkarlanean, 1997.
- SATRUSTEGI, José M^a. *Solsticio de invierno*. Sobre Etnografía Vasca 3. Iruña, 1988.
- TRUFFAUT, Thierry. *Joaldun et Kaskarot: des carnivals en Pays Basque*. Donostia; Baiona: Elkar, 2005.
- . *Vers un inventaire des traditions carnavalesques et hivernales de la province du Labourd. / Euskal Herriko Lapurdi probintziako inauteri eta negu ohituren zerrendatze bati buruz*. Colección Barandiaran, nº 15. Ataun: Fundación José Miguel de Barandiaran Fundazioa, 2011.
- ZUFIAURRE GOYA, José. Beasaini buruzko monografía etnografikoa. *Beasaingo paperak. Beasaingo Udalaren Aldizkaria*. Beasain: 1998ko urria, 7 zenb.
- VAN GENNEP, Arnold. *Manuel de folklore français contemporain*. Tome 1. VIII, *Cycle des douze jours: de Noël aux Rois*. Paris: A. et J. Picard, 1988.





IRUDIEN ITURRIAK

Labayru Ikastegiko irudi-artxibokoak:

ANTXON AGUIRRE: 5, 14, 16, 44, 45, 46

JOSEBA AURKENERENA: 13, 47, 49

JUAN BENGOA: 24

FERNANDO DÍAZ DE CORCUERA: 6, 25

MICHEL DUVERT: 48

IGONE ETXEBARRIA: 10, 19, 21, 28, 29, 30, 31, 40, 41, 42, 43, 50

JUAN JOSÉ GALDOS: 38

GABRIEL IMBULUZQUETA: 18, 32, 33, 34, 35, 36

AKAITZE KAMIRUAGA: 1, 2, 3, 7, 8, 9, 15, 17, 23, 26, 27

LABAYRU IKASTEGIA: 12, 39

GERARDO LÓPEZ DE GUEREÑU YOLDI: 11, 20, 22, 37



